

HITANOA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Elortza Izagirre, Ainara

ZUZENDARIA: Arroita Azkarate, Izaro

GRADUA: Haur Hezkuntzako Gradua

MINORRA: Euskara, Hezkuntzarako Tresna

2021

LABURPENA

Hitanoaren beherakadak aspaldidanik kezkatzen ditu euskaltzaleak. Leku batzuetan, oraindik ere gazteen artean indartsu mantentzen den arren, neskek hitanoaren barruan zuten espazioa galdu egin dute eta honek noka ia hiltzorian utzi du. Gai honekin arduratuta, hitanoa eta bereziki noka suspertzeko xedearekin, ekimen ezberdinak sortu dituzte hainbat eragilek, baina normalean, gaztetxoei edo helduei zuzenduta egon ohi dira. Lan honek hitanoaren lanketa Haur Hezkuntzatik hastea proposatzen du. Haurra, jaiotzen den momentutik hizkuntza ohiturak jasotzen hasten denez, hitanoaren gaiari modu eraginkorrean erantzun ahal izateko, lanketa txikitatik hastearen garrantziaz ohartaraztea da lanaren helburu nagusia. Hitanoaren ezaugarri eta arazoak aztertu ondoren, hitanoa eta noka bizirik dauden herri batean, Azkoitia, eskolan Haur Hezkuntzako etapan hitanoa lantzeko proposamen didaktikoa aurkeztuko da.

Hitz gakoak: hitanoa, toka, noka, generoa, haurrak

RESUMEN

Hace años ya que el descenso de *Hitanoa* (tratamiento de confianza en euskera, equivalente al tuteo) preocupa a los euskaltzales. Aunque en algunos lugares, todavía se mantiene fuerte entre los jóvenes, las chicas han perdido el espacio que tenían dentro de *Hitanoa* y éste ha dejado a *Noka* (forma de hitano referida a las mujeres) casi moribundo. Con el objetivo de reactivarlo, varios agentes han creado diferentes iniciativas, pero estas, normalmente van dirigidas a jóvenes o a adultos. Este trabajo propone comenzar la instrucción del *Hitanoa* desde Educación Infantil. Dado que el niño empieza a recibir hábitos lingüísticos desde el momento en que nace, para poder responder de forma eficaz a este tema, el principal objetivo del trabajo será concienciar sobre la importancia de comenzar a cultivarlo desde que son pequeños. Tras analizar las características y problemas que tiene *Hitanoa*, se presentará una propuesta didáctica para cultivarlo en la etapa de Educación Infantil en una escuela de Azkoitia, un pueblo en el que todavía sobreviven *Hitanoa* y *Noka*.

Palabras clave: hitano, toka, noka, genero, niños y niñas

ABSTRACT

Among euskara lovers it is a long-standing concern the fall in the use of the familiar form of address HITANOA (Toka for male and Noka for female) in our Basque language. Even, nowadays in some places it is used a lot among young people, girls have lost their own space within the Hitanoa area and as a consequence Noka is in a total agony. Concerned about this issue, with the aim to recover Hitanoa and specially Noka, some promoters have initiated different actions, but most of them are directed to young and adult people.

The main goal of the work is to warn us of the importance of start using the familiar form Hitanoa as soon as a child begins to receive customs of language in order to be able to respond effectively to the subject of Hitanoa. After examining the characteristics and problems of the Hitanoa and focussing in Azkoitia town where both, Toka and Noka are still alive, the didactic proposal and suggestions to work in this informal language way with kindergarten children are introduced to school.

Keywords: hitanoa, toka, noka, gender, children

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Metodologia	8
3. Marko teorikoa	9
3.1. Zer da hitanoa? Ezaugarri nagusiak.....	9
3.2. Hitanoa Historian zehar.....	10
3.3. Hitanoa norekin eta noiz erabili	12
3.4. Hitanoa desagertzearen arrazoiak	14
3.5. Hitanoa genero ikuspegitik.....	17
3.6. Hitanoa gazte hizkeran	21
3.7. Hitanoa Haur Hezkuntzan	23
4. Hitanoa Urola Erdian: egoera soziolinguistikoa eta hitanoaren egoera bailaran.....	25
4.1. Hitanoa gazteen artean: Azpeitiko kasua.....	25
4.2. Azkoitiko kasua.....	30
5. Proposamenaren xedea: Floreaga Salestar ikastetxea	33
5.1. Floreaga Salestar ikastetxeko errealitatea	33
5.2. Eskolako galdeketa eta jaso diren emaitzak	35
6. Hitanoa indartzeko proposamen didaktikoa	39
6.1. Proposamen didaktikoaren helburuak.....	39
6.2. Hitanoa lantzeko proposamenak	40
7. Ondorioak	47
8. Bibliografia.....	49
9. Eranskinak.....	53

1. SARRERA

Hitanoa Haur Hezkuntzarekin lotzea ez da ohikoena eta agian bat baino gehiagori arraroa egingo zaio gai hau adin tarte honetako haurrentzat proposatzea. Euskaldun askori hitanoa arrotza egiten zaie; zer den jakin arren, beren egunerokoan ez dute erabiltzen, eta horietako askok, seguru aski, beharrik ere ez zuten inoiz sentituko. Euskal Herriko txoko askotan tratamendu hau erabat galduta dago eta leku horietan zukak erraz betetzen du hikak utzi duen espazioa. Honi guztiari euskara hizkuntza gutxitua dela gehitzen badiogu, agian, pentsa dezakegu euskarak badituela hitanoaren aurretik dauden hainbat kezka eta buruko min.

Gainera, hitanoa lantzen hasita ere, Haur Hezkuntza ez dirudi horretarako adin tarte egokiena denik. Azken urteetako tradizioan oinarritzen bagara, hitanoa erabiltzen den herri gehienetan haur txikiei zuka hitz egiten zaie eta beraiek ere hika koskortzen direnean hasten dira, gutxienez zazpi edo zortzi urte aldera; beraz, normalean hitanoa helduagoen kontua dela esan daiteke.

Orduan, zer dela eta gai hau?

Hasteko, eta lehenengo puntuari erantzunez, hitanoa oraindik ere bizirik dagoelako eta euskararen ezaugarrietako bat delako. Gure hizkuntzaren aberastasun bat dela ere esan daiteke. Solaskide batekin ari garenean, tratamendua aukeratzerakoan normalean bi izenordainen artean aukeratzen da, zu edo hi. Hikakoaren hautua egitean, hitanoa, hau da, alokutiboa erabili behar denez, solaskidearen generoaren arabera toka (gizonezkoekin ari garenean) edo noka (emakumezkoen zuzentzean) egiten da. Izatez, hikako tratamendua (singularrari dagokionean) zaharragoa den arren (Txillardegi, 1968), gaur egun zuka askoz ere gehiago entzuten da eta bere erabilera esparrua zabalagoa da. Hala ere, Euskal Herriko hainbat txokotan hitanoa bizirik dago oraindik eta funtzio sozial bat betetzen du: solaskideen arteko nolabaiteko konfiantza, gertutasuna edo konplizitatea islatzen du. Herri horietan benetan garrantzitsua da hitanoa. Tratamendua medio, gerturatu edo urrundu egin daiteke bi pertsonen arteko harremana; kidesasuna, errespetua, hotsasuna, haserrea edo laguntasuna indartu daiteke hizkuntzaren bidez, tratamendu bat edo bestea aukeratuta. Aldaera hauek hizkuntza beraren aberastasuna azaltzen dute eta hizkuntza funtzionalagoa egiten dute, erregistro ezberdinetara hobeto egokituz.

Funtzionaltasun hau, euskarak egun duen egoeran, inoiz baino beharrezkoagoa dela dirudi. Azken urteotan, gazteen artean asko hedatu da euskararen ezagutza, ez hala erabilera. Gazte askok euskara eskoletan ikasi dute, hau da, testuinguru formalean, baina gero, testuinguru informalerako baliabiderik ez dutenez, kalean eta lagunartean ez dute erabiltzen. Sarritan hitz egin da gazte hizkera baten beharraz. 2005ean Azpeitian gazte hizkeraren inguruan egin ziren jardunaldietan gai honi buruz aritu ziren; bertan esan zenaren arabera (Altuna, 2006), gazte hizkera kalean sortu eta indartu behar den arren, egun, hizkera informal hori eskoletan zeharka lantzeko beharra dago eta erregistro ezberdinak ikasi eta erabiltzeko testuinguruak sortu beharko dira. Gaur egun, hitanoa eremu informalera eta hurbileko harremanetara mugatzen denez, gazte hizkerari ondo baino hobeto datorkiola dirudi.

Urte askoan hitanoak ospe txarra izan du: baserritarrena, ijitoena, itsusia, zakarra... zela esaten zen eta honek hitanoaren, eta bereziki nokaren galeran izugarritzko eragina izan du. Azken urte hauetan ordea hitanoarekiko bestelako jarrera bat ari da agertzen gazteen artean:

Hitanoaren inguruan egin diren lanak kontutan izanik, esan liteke hitanoaren balioespenari dagokionean, beste diskurtso batzuek indarra hartu dutela. Tolosaldeako gazte batzuen hitzetan, hitanoa harrotasunezko bereizgarria izan liteke. Era berean, Eskoriatzako gazteen arabera, hitanoak “desberdintasun” bat markatzen du; nolabaiteko “caché” bat. Zentzu honetan eta Antzuolara itzuliz, elkarriketatutako bi mutil tokatzaileek eta nokarako trantsizioa egin duten bi emakumezkoek, nortasunarekin eta nolabaiteko euskal “pedigri” batekin lotu izan dute hitanoa beraien elkarriketetan. Hitanoak “benetakotasun” zigilu gisako bat, eskaintzen duelarik neska zein mutil gazte hauentzat. (Legorburu, 2018: 100).

Jarrera honetatik abiatuta, hitanoa baliagarria izan daiteke euskarazko gazte hizkera indartzeko, erabat galdu ez den herrietan bederen. Baina orain arte hitanoa etxean eta kalean erabili eta ikasten bazen, azken urteetan etxeko transmisioan eten bat egon da. Ondorioz, gazteek kalean soilik ikasten dute, eta ez dirudi modu egokian jasotzen ari direnik; honen adierazle hiperhitanoa¹ eta bereziki nokaren galera ditugu. Erabilera oker honetatik sortzen da hizkera informala eta hitanoa eskoletan lantzeko beharra.

¹ Hiperhitanoa hikako adizkietan, generoa bereizteko, beharrezkoa ez izan arren, *hi* pertsona-marka hasieran duten adizkiei erdian edo bukaeran ere *n/k* pertsona marka eranstea da, hots, adizki bati hikako marka bi aldiz jartzea. Adibidez, *hi haizela* > **hi haizekela* / *hobe hukek* > **hobe huken* (Lizartza, 2009).

Hainbat herri eta eskoletan egin dira hitanoa lantzeko saiakera eta proposamenak. Proposamen hauek ordea, gehienetan, helduei eta gazteei zuzenduta egoten dira eta ez umeei. Egia da normalean haur txikiei hika egiteko ohiturarik ez dagoela eta umeak ere hitanoz handitzen direnean hasten direla. Hizkuntzaren garapena ordea haurra jaiotzen den momentutik –eta agian lehenagotik– hasten denez, une honetatik bertatik jasotzen dira hizkuntza ohiturak, gramatika, hizkuntzari atxikitako rolak eta abar. Hitanoak dituen konnotazio eta ospe txarra kendu nahi badugu, hitanoa gure hizkeran modu naturalean txertatu nahi badugu, gazteek hitanoarekiko atxikimendua garatzea komenigarria dela uste badugu, txikitatik beraien egunerokoan txertatzea beharrezkoa izango da, umeen belarriak hitanoaren soinura, gramatikara, gertutasunera ohitzea.

Hitanoaren biziraupena eta erabilera egokia ziurtatzeko, umeen eskolako lehen urteetatik hastea beharrezko izateaz gain egokia ere bada, gainerako etapetan ez bezala, gehienetan Haur Hezkuntzako erregistroa informala eta ahozkoa delako, gaur egun hitanoaren eremua den gisara.

Arrazoi guzti hauengatik aukeratu dut gai hau Gradu Amaierako Lanean jorratzeko. Hemendik aurrera, orain arte azaldu ditudan puntu hauek sakontasun gehiagorekin argitzen saiatuko naiz baina, laburbilduz, honakoa izango da nire lanaren ardatza:

- Azken urteotan hitanoaren erabilerak beheranzko joera duela dirudi; Euskal Herria osotasunean hartzen badugu hala izan arren, leku batzuetan oraindik tokak bizirik eta indartsu dirau eta, bitartean, noka da hiltzorian dagoena.
- Hitanoaren aberastasuna eta betetzen duen funtzio soziala kontuan hartuta, gure esparrutik, hots, Haur Hezkuntzatik, zer egin dezakegu?

Galdera honetatik abiatuta, nire lanaren helburu nagusia Haur Hezkuntzan hitanoa lantzeko proposamen bat eskaintzea izango da. Honetarako lehenengo hitanoa modu orokor batean aztertuko dut, baina ondoren, herri eta errealitate konkretu batean, zentratuko naiz: nire proposamenak Azkoitiko Floreaga ikastetxea izango du xede.

Hitanoaren egoera zeharo ezberdina da Euskal Herriko herri batetik bestera, eta ikastetxe bakoitzak gai hau lantzerakoan izango dituen beharrak ere diferenteak izango dira. Horregatik, eta errealitate bakoitzak proposamen propio bat beharko duela kontuan hartuta, proposamen hau, aurretik aipatu dudana ikastetxeko ezaugarrietara egokituta egin da.

2. METODOLOGIA

Lan hau egiteko lehenengo urratsa gaiaren inguruko informazioa biltzea eta aztertzea izan da. Honetarako, autore ezberdinen lanak hartu dira abiapuntutzat. Testu hauen bidez, gizarteko botere harremanenak, generoaren arteko ezberdintasunenak eta antzeko gatazkek hizkuntzarekin duten lotura aztertu da, gaur egungo egoerara nola eta zergatik iritsi garen ezagutzeko eta konponbideak zein bidetatik proposatu ahal diren jakiteko.

Azterketa orokor honen ondoren, Azkoitiko errealitatearen ahalik eta argazki zehatzena egitea izan da bigarren helburua. Honetarako, herriko eta bailarako hitanoaren inguruan idatzi diren lan eta artikuluak bildu dira. Honetaz gain, Azkoitiko AEKko arduradunekin eta euskara teknikariarekin harremanetan jarri naiz herriko eragileen aldetik gaiaren inguruko interesik dagoen jakiteko. Hauei esker herrian orain arte egin, edo gutxienez proposatu denaren inguruko informazioa jaso ahal izan dut.

Azken hurbilketa Azkoitiko Floreaga Salestar ikastetxera egin dut. Nire proposamen didaktikoa eskola honetarako prestatu dudanez, bertako errealitatea ezagutzea ezinbestekoa izan da. Hemen, ikastetxeko euskararen normalizazio taldeko arduradunarekin eta talde bereko Haur Hezkuntzako kide batekin hitz egin dut ikastetxean hitanoaren inguruko interesa, orain arte egindako lana, egoera orokorra eta Haur Hezkuntzako etapako xehetasunak ezagutzeko.

Informazio guzti honetan oinarrituta bi galdeketa prestatu ditut: bata Floreagako Haur Hezkuntzako irakasleentzat eta bestea bertako 4 eta 5 urteko haurren gurasoei bideratuta.

Informazio guztia bildu ondoren, azken pausoa, Azkoitiko Floreaga ikastetxeko errealitatera egokitutako proposamen didaktikoa prestatzea izan da. Proposamen

honetan Haur Hezkuntzan hitanoa landu ahal izateko irizpideak, jarduerak, ipuinak, abestiak eta beste hainbat material bildu dira.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Zer da hitanoa? Ezaugarri nagusiak.

Euskaraz, singularreko bigarren pertsonari ari gatzazkionean –hots, gure solaskide den horri edo gutxienez gure jardunaren hartzaile zuzenari–, tratamendu ezberdinak daude: *hi*, *zu* (*xu*, Nafarroa Behereko herri batzuetan) eta *berori*. Hurrenez hurren, testuinguru informal/formal edo pertsona horrekiko gertutasun/begirunearen arabera bat edo bestea erabili ohi da. Egun, hika moldea euskararen tratamendu informala dela esan genezake, normalean konfiantzazko edo gertuko pertsonekin erabiltzen dena. Zukako tratamendua hiruretan erabiliena da eta testuinguru guztietarako balio du. Berori berriz tratamenduen artean formal edo begirunezkoena da. Hegoaldean baino ez da erabiltzen eta egun ez da oso ohikoa (Alberdi, Euskararen tratamenduak²; Euskara Institutua, Berori³).

Hiketa, hikako tratamendua darabilen hizketa da. Hitanoa ere hika formaren gainean eraikia dago, baina bada bien arteko ezberdintasun bat: alokutiboaren erabilera. Molde alokutiboan, igorleak, erregistro neutroan edo eztabadakoan ez bezala, aurrean duen solaskidearen marka ere islatzen du adizkian, hau da, NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona-markez gain, solaskideari dagokion pertsona marka ere agertzen da. Adibidez: “*pozik nago*” neutroa, hitanoz “*pozik nagok/nagon*” litzateke, hiren alokutiboaren marka barneratuko lukeelako (Alberdi, Hitanoa⁴). Alokutiboari esker, entzulea gure jardunean txertatzen dugu, eta ondorioz, alokutiboaren osaeragatik, hitanoa bi lagunen artean bakarrik erabiltzekoa da (Lizartza, 2009). Hitanoan solaskidea aintzat hartzen denez, eta hartzaile honen generoaren marka eransten dionez, hitanoaren barruan bi tratamendu bereizten ditugu: *toka* (solaskidea mutila edo gizonezkoa bada) eta *noka* (neska edo emakumea bada).

² Aurrerantzean Alberdi, ET.

³ Aurrerantzean Euskara Institutua, B.

⁴ Aurrerantzean Alberdi, H.

Alokutiboan, hitanoaz gain zutanoa (pozik *nagozu*) eta xutanoa (pozik *nagoxu*) ere baditugu, baina iparraldeko euskalki batzuetara baino ez dira mugatzen, eta hortik kanpo ia ezezagunak dira. Beraz, zuketa ia beti modu neutroan edo eztabadakoan egiten da.

Hitanoak azken urteetan gainbehera nabarmena izan duen arren, Euskal Herri osoan erabili izan da (Lizartza, 2009). Gaur egun modu neutroan ez da erabiltzen, eta halaxe dio Euskaltzaindiak: “behin hika egitea erabaki bada, ezinbestekoa da hikako alokutiboan aritzea”⁵.

Laburbiltzeko, hitanoak ezaugarri hauek dituela esan genezake:

- Solaskideari erreferentzia *hi* izenordainaren bidez egitea.
- Aditz alokutiboak erabiltzea ezinbestean.
- Solaskidearen sexu-generoaren arabera bereizketa: toka / noka.

3.2. Hitanoa Historian zehar

Solaskidearekiko tratamendu ezberdinak erabiltze hau ez da euskararen bitxikeria bat, inguruan ditugun beste hizkuntza batzuetan ere gertatzen baita, besteak beste, gaztelanian (tu/usted), ingelesean (thou⁶/you) edo frantsesean (tu/vous). Bikoizketa hau ez da kasualitatea, historian zehar pertsonen artean egon den botere harremanaren isla baizik.

Antzinako latinak *tu* forma bakarra zuen singularrerako eta *vos* izenordaina pluralerako erabiltzen zen. IV. mendean ordea, enperadoreari zuzentzeko *vos* plurala erabiltzen hasi omen ziren (Alberdi, 1993). Aldaketa honen arrazoia oso garbi ez dagoen arren, hipotesi nagusiaren arabera, enperadore edo erregeak herritarren batuketaren sinboloa diren aldetik, badirudi enperadoreak beren buruaz ari zirenean *nos (gu)* erabili ohi zutela *ni* esan ordez, menpeko guztiak bere buruaz ordezkatzuz. Horren errespetuzko erantzun logikoa *vos* plurala erabiltzea zenez, pluraltasun hau botere edo agintearen metafora bihurtu zela dirudi. Sortzez enperadoreari soilik zegokion *vos* errespetuzkoa

⁵ Ikus Euskara Batuaren Eskuliburuan “Alokutiboa” sarrera.

⁶ Egun *thou* singularra galduta dago.

bestelako goi-mailako agintarien artera hedatuz joan zen eta, pixkanaka, mendeen poderioz, baita boterearen beste esparru guztietara ere, familia barne. Botere harremanean faktore ezberdinek eragin dezakete –indar fisikoak, adinak, sexuak, erakunde mailan norberak duen paperak...– eta harreman honek hizkuntzan ere izan zuen beren eragina: boteredunari errespetuzko tratamendua zor zitzaionez *vos* (*V*) plurala erabiltzen zen eta boterea ez zutenekin *tu* (*T*) singularra. Honek tratamenduen erabilera asimetrikoa ekarri zuen, hau da, behe-mailakoek goi-mailakoei *V* esaten zieten arren, goikoek behekoekin *T* erabiltzen zuten. Honi boterearen semantika deitu izan zaio (Alberdi, 1993).

Boterearenaz gain, bada beste harreman mota bat ere: elkartasunarena. Faktore batzuek botere harremana sortzen duten modura, faktore horiek beraiek edo beste batzuek elkartasuna edo kidetasuna ere sortzen dute –kidetasun politikoa, familiazkoa, erlijiozkoa, lanbidezkoa, sexuzkoa edo jaioterrizkoa, esaterako– eta boterearena erlazio asimetrikoa baldin bada, elkartasunarena simetrikoa da. Gizarte oso hierarkizatu batean agian, botereren semantikak oso ongi funtzionatuko zuen, baina gizartea aldatu ahala, harremanak eta tratamenduen erabilera ere aldatuz joan ziren. Hasiera batean boterearen semantika gailentzen bazen, XIX-XX. mendetatik aurrera elkartasunaren semantikak hartu zuen indarra eta tratamenduen erabilera simetrikoa nagusitu zen, hau da, gertuko edo kideekin egiten zen *T* eta hain gertukoak ez zirenekin *V* (Alberdi, 1996). Historian zehar tratamendu bakoitzaren erabilera esparrua zabalduz edo mugatuz joan da eta gai honi dagokionez, hizkuntza bakoitzak egin duen ibilbidea ezberdina izan da.

Euskararen kasuan ere tratamenduen bikoizketa modu berean sortu zelakoa da hipotesi nagusia, nahiz eta hau egiaztatzeko beharrezkoak liratekeen dokumenturik ez dugun; euskaraz idatzitako lehen liburua 1545ekoa da eta dokumentu zahar gehienak izaera jasokoak dira gainera. Hala ere, aipatzekoa da Joanes Leizarragak 1571. urtean *Aita Gurea* otoitza euskaratu zuenean Jainkoari hika zuzendu zitzaiola: “*Gure Aita ceruëtan aicena, Sanctifica bedi hire Icena...*”. Errespetu gorenena zor zioen Jainkoari hika egin izana, garaiko hizkeraren isla baino ezin daiteke izan (Alberdi, 1993). Beraz, hipotesi honi jarraituz, hasierako bigarren pertsonako izenordainak singularrean *hi* eta pluralean *zu* izan zirela uste da (gaur egun *zu* singularra izan arren, izenordain honekin komuntadura egiten duten adizkietan pluralgile bat ere ager daiteke). Inguruko

hizkuntzetan gertatu zen moduan, pluraleko modua, bere jatorrizko zentzuaz gain, begirunea eta botere harremanak azaltzeko ere erabiltzen hasi ziren. Bikoizketa honek eragindako nahasmenetik, begirunezko tratamendua eta pluralaren arteko bereizketa egiteko beharra egongo zen eta ondorioz *zuek* plural berria sortuko. (Alberdi, 1996). Beraz, euskararen jatorrizko tratamendua hiketa dela pentsa dezakegu; Euskal Herri osoan erabili izan da eta hasieran esparru guztietan hika hitz egingo zen. Zuka boterearen semantikaren ondorioz zabaldutako arren, gure hizkuntzaren kasuan, eta inguruko beste hizkuntzetan gertatzen denaren kontra, elkartasunaren semantikak ere zuka lehenetsi zuela dirudi, eta hika pixkanaka bere erabilera esparrua galduz joan da; gaur egun, eremu informal eta konfiantzazkora mugatu zaigu. Gainera, euskararen boterearen semantikaren aztarnak inguruko beste hizkuntzetan baino nabarmenagoak dira eta tratamenduen erabilera asimetrikoagoa mantentzen da. (Alberdi, 1993)

3.3. Hitanoa norekin eta noiz erabili

Dagoeneko aipatu da tratamendu bikoizketa hauek jatorriz, botere harremanen ondorio direla. Gizarte erabat hierarkizatu haietan oso argi zegoen zeinek zuen boterea noren gainean eta botere harreman hau hizkuntzaren bidez ere nabarmendu beharra sentitu zuten: harremanak berdinen artekoak zirenean tratamenduak simetrikoak izan ohi ziren (hau da, elkarrekiko tratamendu bera erabiltzen zuten: zu-zu edo hi-hi) baina ezberdinen artean zirenean (hots, nobleak/herri xehea, nagusia/morroia, gurasoak/semi-alabak...) goitik beherakoak, asimetrikoak (zu-hi) izaten ziren. Gizarte hierarkizatu hartan boterearen semantika honek ongi funtzionatzen zuela dirudi, baina gizartea aldatu ahala hizkuntza ere aldatzen denez, tratamenduaren gakoa boterearen semantikatik elkartasunaren semantikara pasa zen (Alberdi, 1993). Honek esan nahi du, gaur egun tratamendu bat edo bestea aukeratzekoan solaskideen arteko botere harremanari baino gehiago bien arteko harreman pertsonalari, hau da, duten konfiantza mailari, gertutasunari edo elkartasunari erreparatzen zaiola –hala ere honek ez du esan nahi gizartean botere harremana desagertu denik, aldaketa kulturala eta linguistikoa baino ez da izan—. Ondorioz, hizkuntza gehienetan, tratamenduek simetriarantzko joera dute baina, euskararen oraindik ere mantentzen dira botere semantikaren ondorio diren tratamendu asimetrikoak, bereziki sexu edo belaunaldi ezberdinekoen artean.

Garai batean hitanoa zen modu bakarra, Euskal Herri osoan eta egoera guztietan erabiltzen zena. Pixkanaka, zuketak lekua kendu dio eta egun hitanoa testuinguru informalera mugatzen da –bereziki familiara eta lagun artera–, eta berdinen artean eta goitik beherako harremanetan erabili ohi da. Euskal Herriko txoko guztietan aldaketa hau ez da modu berean gertatu: leku batzuetan hitanoa erabat galdu da, eta bizirik dagoen lekuetan ere ez da berdín erabiltzen, herri batean egoera jakin batean hitanoa erabiltzea zilegi izan daiteke eta beste herri batean berriz erabat ezohikoa.

Tratamendu bat edo bestea aukeratzekoan ez dago erabilera-arau zehatzik, joera kontua da, belaunaldiz belaunaldi jarraitu dena. Ohitura hauek aldagai soziolinguistiko ezberdinen menpe daude, besteak beste, hizketaldiaren testuingurua, solaskideen adina eta belaunaldia, sexua, senidetasun-maila, talde-kidetasuna edo elkartasun psikologikoa edo sentipenezkoa (Alberdi, 1993). Bi solaskideen artean zenbat eta aldagai berdín gehiago egon, orduan eta aukera gehiago egongo da hitanoa modu simetrikotan erabiltzeko. Solaskideen ezaugarriak ezberdinak badira berriz (sexu bera baina belaunaldi ezberdina, esaterako), orduan eta gehiago egingo da modu asimetrikotan edo zuka. Gaur egun, “aipatutako aldagai guztien artean, sexua da beharbada hitanoaren erabilera gehien baldintzatzen duena” (Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020: 119). Arau idatzirik ez dagoela esan dugun arren, aldagai hauek kontuan hartuta, eta tokian tokiko berezitasunak alde batera utzita, badago halako batasun bat funtsean Euskal Herri osoan, Alberdik (1994) “euskal usuarioak” deitzen diona. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

- Batetik adina edo belaunaldiaren aldagaia daukagu. Bi pertsonen artean adin tarte nabarmena badago eta hitanoa erabiltzen bada, normalean, modu asimetrikotan egin ohi da, zaharrak gazteari hika eta gazteak zaharrari zuka.
- Orokorrean familiaren esparrua da hitanoa gehien egiten den lekua. Ahaidetasuna zenbat eta gertuagokoa izan, orduan eta gehiago egiten da hitanoz, bereziki haurrideen artean –normalean modu simetrikotan–, eta gurasoek beren seme-alabei –kasu honetan ia beti asimetrikoa, seme-alabek gurasoei hika egitea ez da oso ohikoa, azken urteetan egin diren ikerketetan joera aldaketa bat ikusten den arren (Azpeitiko Euskara Patronatua, 2011)–.

Bikoteen artean, behin ezkondu ondoren, tradizioz, toki gehienetan zuka egin izan da eta haur txikiei ere gehienetan zuka egiten zaie.

- Familiaz gain lagun artea da hitanoa mantendu den beste esparru garrantzitsua –kasu honetan ere erabilera simetrikoa egin ohi da–.
- Familia eta lagun artetik kanpo hitanoa erabiltzeko, normalean kidesun bat gutxienez egon beharko du: lankidesuna, herrikidesuna, jolaskidesuna... nolabaiteko hurbiltasun psikologiko bat. Hau ez badago, normalean zuka egiten da.
- Animaliei ere hitanoz egiteko ohitura handia dago.
- Talde bati zuzentzerakoan, normalean, ez da egokia hitanoa erabiltzea, bereziki talde hau gizon eta emakumez osaturik badago –eta ondorioz toka edo nokaren artean aukeratu beharra badago–.

Normalean bi pertsonen artean tratamendu bat erabiltzen denean, egoera guztietan tratamendu bera mantentzen da. Hala ere, batzuetan gertatzen dira aldaketak eta Alberdiren iritziz psikologiak badu bere garrantzia egoera hauetan. Adibidez, normalean zuka aritzen diren bi lagunek festa giroan hika egin diezaioke elkarri, edo alderantziz, normalean hika egiten dion ama batek haserrealdian semea zuka egin urruntze psikologikoa adierazteko.

3.4. Hitanoa desagertzearen arrazoiak

Hitanoa oraindik ere euskalki gehienetan mantentzen da, ez neurri berean leku guztietan, baina azken urteetan hitanoaren beherakada oso nabarmena da. Galera honetan faktore ezberdinek izan dute eragina (Alberdi, 1993), besteak beste:

1. Euskararen beraren egoera. Hitanoa bereziki euskara indartsu dagoen herrietan mantendu da bizirik. Badakigu ordea zein den gure hizkuntzaren egoera Euskal Herria bere osotasunean hartzen badugu, eta hitanoa ere halaxe desagertu zen euskarak indarra galdu zuen herrietan.
2. Hitanoaren ospe txarra. Horretarako arrazoi garbirik ez badago ere, hitanoak konnotazio txarrak izan ditu: zakarra, itsusia, gogorra, baserritarrena, ijitoena...⁷

⁷ Ospe txar honen testigantza ugari ikus daitezke Ahotsak.eus-en bideo honetan: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Fitxategi:Hika.ogg>

dela esan izan da. Arrazoi honengatik, gurasoengandik seme eta bereziki alabenganako transmisioa moztu egin zen familia askotan. Modu honetan azaldu zuen Txillardegik egoera:

Hika-ko jokabideek, denetan jatorrenak izanik ere, sozial-aipamena galdu dute; eta fama hau zabaldu gure artean: «hika-ko molde hori itsusia, zabarra, arlotea da. Utikan!». Askok entzun izan dugu hau gure etxeetan. Kaletarrak bezela mintzatzea «dotoreago»tzat horrela hartuta, hika-ko formak alde batera utziak izan dira berariaz burgesen artean; eta Euskal Herriko zenbait eskualdetan erdi galdurik daude. (Txillardegik, 1968: 128)

3. Alokutiboaren zailtasun gehigarria. Adizkietan, ohiko pertsonen markez gain alokutiboaren sintagma ere gehitu behar da hitanoan. Gainera, alokutiboa euskalki batetik bestera aldatu egiten da. Honek guztiak, euskara ikasi behar duenari zailtasun bat gehitzen dio eta gure hizkuntzaren egoera larria ikusita, batzuen ustez, hitanoaren galera hau ez da gauza txar bat, hizkuntzaren bilakaera natural bat baizik, eta gaur egun, euskarak berak bizi duen egoera ikusita, desiragarria ere bai:

Hitanoa baztertzea proposatzen dut. (...) Ez dut esan nahi izan euskaldun herrietako hizkuntza kolokialean hitanoa baztertu behar dugunik. Ez, aipaturiko esaldia idatzi dudanean ETB nuen gogoan bereziki. Zergatik erabili behar da hainbeste hitanoa filmetan? Euskal Herriko leku askotan hitanoa ez da erabiltzen, ikastola gehienetan ere hori bera gertatzen da, eta euskaldun berriek, jeneralean ez dute hori ikusten. Bigarren pertsonarako konjugazio bat baino gehiago erabiltzea luxu bat da. Lehen hiru forma ezberdin ziren, gero bira jaitsi genituen, eta orain bat bakarrentz goaz. Hori ez da euskararekin bakarrik gertatzen. Ingeles hizkuntzan "zuka" nagusitu da, gaztelaniaz "zuka" desagertzera doa. Dirudienez euskarak ingelesaren bidea hartuko da. (Gereño, 1991; hemen aipatuta: Alberdi, 1993: 432)

Beste aditu batzuk ordea ez datoz bat ideia hauekin. Txillardegik adibidez, 1968. urtean honako jarrera adierazi zuen:

Hizkuntza guzietan ba dago errazenerako joera eskuar bat. Euskeran ere gauza bera. Hika-ko formak bestetik gaiñerakoak baiño «zaillago» diran ezkerro, uztearen alde daude batzuk. Euskaldun hutsen artean, ordea, eta edozein hiztun taldetan, forma horiek bizi-bizirik daude zaillak izan arren; gehien batez hizkuntzak ez baitira «zaillak» kanpotarrentzat baizik. Eta baztertzeko barne-arrazoin funtsezkorik ez dago, gaur gaurkoz bederen. (Txillardegik, 1968: 128)

4. Irakaskuntzan (eskola, euskaltegi, institutuan...) hitanoa ez da lantzen. Agian irakasleek beraiek ere ez dakitelako nola landu, ez dutelako erabiltzen edo

hitanoaren arlo batzuk ongi arautua ez egoteak zalantzak sortzen dizkielako. Dena dela ere, puntu honek hitanoaren galeran dezenteko pisua duela dirudi, hitanoa kaleko eta etxeko eremura mugatzen baitu. Modu honetan, euskal hiztun berriei arrotza egiten zaie, ikasten dutenek kalean jasotakotik ikasten dute –sarritan ez oso modu egokian–, eta erabileran egiten diren okerrak ez dira zuzentzen.

5. Erreferente falta. Komunikabideetan erreferenteak izateak hitanoari normaltasuna ematen dio eta beharrezkoak dira bizirik dagoen herrietan hitanoari eutsi ahal izateko (Ibarra, 2007). Telebistak, irratiak eta prentsa idatziak ordea mugak dituzte hitanoa hedatzeko, solaskide konkretu bat ez dagoenez eztabadaka (neutroa) egiteko beharra baitago. Hala ere, Euskal Telebistan egin izan dira ahaleginak hitanoa sartzeko; besteak beste, Andoni Aizpuru eta Xabier Euzkitze aurkezleek erabili izan dute beren jardunean, *Goenkale* telesail ezagunean hitanoa erabiltzen zen eta baita *Dragoi bola* marrazki bizidunetan ere. Beñat Muguruza⁸ ikertzaileak dioenez, eta egin duten ikerketa batean oinarrituta⁹, hitanoaren erabilera honek izan du bere eragina *Dragoi Bolaren* jarraitzaileen artean, hori bai, erabileran baino gehiago ikusleek hitanoarekiko zuten jarreran nabarmendu da eragin hori. Gaur egungo egoerari buruz galdetzen diotenean berriz, duela 25-30 urte baino gutxiago erabiltzen dela orain esaten du eta adibide moduan, *Merli* telesail arrakastatsua jartzen du, non hitanorik ez den erabiltzen. Literaturan ere ez dirudi asko direnik hitanoz idatzitako testuak, bereziki umeei zuzendutako liburuetan. Honen inguruko ikerketa lanik ez dut aurkitu eta hitanoa agertzen den liburuen bila ibili naizenean haur txikientzako liburuetan hitanoa topatzea oso zaila dela ikusi dut. Hitanoa topatu dudak liburuen gehienak, gainera, tradizioko ipuinak edo mitologiari loturikoak izan dira eta hauetan ere toka askoz gehiagotan agertzen da noka baino¹⁰.

⁸ Euskadi Irratiko *Amarauna* saioan (2019-10-19), hizkuntza gutxituetako hedabideen osasunaz, Beñat Muguruza ikerlariari egin zioten elkarrizketan jasoa. Hemen entzun daiteke elkarrizketa osoa: <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/amarauna/oso/6757077/hizkuntza-gutxituetako-hedabideen-osasunaz-benat-muguruza-ikerlaria---/>

⁹ Ikerketa honen inguruko informazio www.hitanoaz.eus web orrian aurkitu daiteke.

¹⁰ Gai hau 6. puntuan, jarduerak proposatzen direnean, landuko da.

3.5. Hitanoa genero ikuspegitik

Hitanoak bere baitan bi modu bereizten ditu, toka eta noka. Bat edo bestearekiko hautua hartzailearen generoaren arabera egiten da: hartzailea emakumezkoa bada noka egiten zaio eta gizonezkoa bada toka; honek aditz forma ezberdinak erabiltzea eragiten du.

Bereizketa honen haritik sortu izan dira hitanoak gaur egungo gizartean izan dezakeen lekuaren inguruko galdera eta eztabaidak. 2018ko EHUKo Uda Ikastaroetan antolatutako «Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?» jardunaldiak abiatzerakoan haxe zen mahai gainean jarri zen gaietako bat:

Gero eta gehiago dira genero-binarismoa gaingitu eta ikuspuntu horretatik jendarte anitzago baten alde borrokan ari direnak, jende asko ez baita eroso sentitzen “emakume” edo “gizon” etiketaren pean. Beraz, gure erdaretan ezaugarri femenino eta maskulinoak neutralizatzen saiatzen ari garen honetan, zer paper jokutzen du XXI. mendean, sexu-generoak bitan hain argi bereizten dituen hitanoak? (Muguruza, 2018: 22)

Jaime Altuna antropologoa honela mintzatu zen jardunaldi hauetan binarismo zorrotzari buruz:

«Nola jokatu hain banaketa binarioa performatzen duen hizkeraren aurrean? [...] Kontua ez da genero kategoriak guztiz desagerraraztea, hori zientzia-fikzioa da, baizik eta binarismo normatibo hegemonikoa arintzea. [...] Binarismo zorrotza zalantzan jartzen ari den garaiotan, nola jokatu hizkera honen aurrean?», galdegiten du Altunak. Bere ustez, hitanoak «etengabe» gogorarazten dizu neska edo mutila zaren, «nahiz eta hitz egiten ari zaren gaiarekin zerikusirik ez izan. Gazteleraz etengabe ‘tú, chica’, ‘tú, chico’ ariko bagina bezala». Gainera, beren burua «kategoria horietan sartzen ez duten pertsonak» gogoratzen ditu. Haien sufrimendua ere aipatzen du. (Larretxea, 2018)

Galdera eta gogoeta hauek ez dute erantzun errazik. Mugimendu feministetatik nokaren berreskuratzearen beharraz hitz egiten den garaiotan egon dira aipamenak hitano neutroaren edo generoaren araua lausotu beharraz (Pagola, 2019), baina gaur gaurkoz, nokaren egoera zaurgarria kontuan hartuta, noketa indartzearen garrantziaz kezka gehiago dagoela dirudi. Lan honetan binarismoaren gai hau alde batera utziko da; hitanoaren berezko eremua biren arteko harremanetik sortzen denez, solaskide horiek beraiek erabaki beharko dute generoen auzia, beti ere elkarrenganako errespetuan oinarrituz. Argi ez dagoenean momentuz eta besterik ezean, zuka aritzea izan daiteke irtenbide egokiena.

Hitanoa sexista den edo ez argitzerakoan generoen artean egiten den bereizketari erreparatzen zaio askotan. Inguruan ditugun bi hizkuntza indartsuenak (gaztelania eta frantsesa) genero hizkuntzak dira, femeninoa eta maskulinoa (niña/niño) dauzkate, alegia. Euskarak kasu gehienetan ez du genero-bereizketarik egiten –hitanoa da bereizketa egiten duen kasu bakanetako bat–, horregatik “genero hizkuntza” ez denez, uste izan da euskaran ez dagoela aukerarik erabilpen sexista egiteko (Barquín, 2008). Ideia honetatik bertatik dator hitanoa sexista delako ustea. Hizkuntza bat ordea ez da sexista “genero hizkuntza” izate hutsagatik. Hemen, *Euskararen erabilera ez sexista* gidaliburuan honi buruz aipatzen dena:

Hizkuntzetan aurkitu ahal ditugu gizarteetan egon den eta dagoen generoen desberdintasunaren markak [...] baina hiztunen ekoizpenetan hautemandako sexismoa hizkuntzaren erabilpenean dago gehienetan eta ez hizkuntzaren sisteman. Hitztunak, beraz, adierazteko modua aukeratu ahal du eta erabilera egokia egin dezake; hizkuntzak ez du desgoki adieraztera behartzen. (Barquín, 2008: 14)

Ritxi Lizartza (2015) ere bide beretik aritzen da hitano alokutiboa, izatez, generoaren ikuspegitik balore moralik gabeko hizkuntzaren atala baino ez dela dioenean (*ostaler* edo *ostalerts*a esaten denean bezala, berez ez dute balore moralik). Hitanoan, genero arteko berdintasun ezaren arazoa beste alde batetik dator, erabileratik hain zuzen ere, eta bereziki nokaren tratamenduaren galeratik.

Hitanoaren barruan toka eta nokaren osasuna ez da berdina, herri askotan toka indartsu mantentzen da noka ia erabat desagertuta dagoen bitartean. Hau ez da kasualitatea, genero rolen isla baizik. Gizartea aldatzen ari den heinean, emakume eta gizonen rolak pixkanaka aldatuz doaz, baina oraindik, gizartean gertatzen den bezala, hizkuntzan ere ikusten dira genero rolen arteko ezberdintasunak; hitanoan bereizketa hau oso nabaria da.

Altunak (Larretxea, 2018) “hizkuntza eta hitza «gizarte egituraren isla» direla (sostengatzen du), baina baita gizartearen eragile ere.” Gizarte justuago bat nahi badugu hizkuntzari ere erreparatu beharra dago. Hizkuntza gizarte egituren isla bada, gizarte horretan dauden hizkuntza ohiturak aztertu behar dira. Gurean, genero rolek emakumea hitanotik urrundu egin dutela dirudi. Goazen bada urrunketa honen arrazoietako batzuk ikustera:

- Onintza Legorburuk (2018) Lakoffen ikerketan oinarrituta emakumeen rolak kortesiazko jarrera mantendu beharra aipatzen du:

Hiru dira kortesiazko hartu emanetan garrantzia izango duten arauak:

1. Formaltasuna: Distantzia markatzen lagunduko du.
2. Begirunea: Entzuleari aukerak emango dizkio.
3. Adiskidetasuna: Sinpatiaren adierazle da.

Lehen arau hau –distantzia markatzearena–, emakumeek gehiago erabiliko dute gizonezkoek baino; nahiz eta, gizonezkoek emakumezkoekin eta estatus sozial ezberdin bat duten beste gizon batzuekin ere, erabiliko duten. Gizonek aldiz, hirugarren araua erabiliko dute gehienbat, hau da, adiskidetasunarena. Hau da, gizonek “anaitasunezko” harremanak eraikiko dituzte beraien artean. (Legorburu, 2018)

Honen arabera emakumeek distantzia gehiago markatu beharko lukete eta horretarako zuka egokiagoa da, gizonezkoek aldiz adiskidetasun harreman gehiago eraikiko lituzkete, beraz hitanoa gehiago erabiliko lukete.

- Hitanoaren prestigioa. Aipatu dugu hitanoak izan duen ospe txarra (zabarra, baserritarrena, itsusia...). Ospe honek hitanoaren galeran, orokorrean, zer ikusi handia izan badu, are gehiago nokaren kasuan. Badirudi emakume rolari okerrago datorkiola hitanoaren zabar eta itsusi fama gizonezkoenari baino. Urte askotan emakumeek hika egitea zabartzat jo izan dutenez, transmisioan etena egon da. (Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020)
- Hitanoaren irudia. Batetik hitanoa konfiantza, bat-batekotasuna, naturaltasuna eta umorearekin lotu izan da, bestetik, euskaldun petoarekin. Ezaugarri hauek euskaldunon iruditeria kolektiboan gizonaren irudiari atxikitzen zaizkio (Echeverria, 2003; hemen aipatuta: Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020).
- Noka emakumeen eta toka gizonezkoen kontua delako ustea. Izatez, noka ez da bakarrik emakumeen hizketa. Toka edo noka hartzailearen arabera erabiltzen da, baina horretan igorleak ez du zer ikusirik. Igorlea gizonezkoa bada eta hartzailea emakumezkoa gizon horrek noka egin behar dio solaskideari eta alderantziz, igorlea emakumea bada eta hartzailea gizona, emakumeak toka egin beharko du. Beraz, erabilera egokia eginez gero, denek erabili beharko lituzkete bi moduak. Gizon askok ordea noka

emakumeena soilik dela uste dutenez, ez dute erabiltzen eta batzuetan toka “gizontasunarekin” lotzen da.

Arrazoiak ugariak izan arren, denek lotura zuzena dute urteetan gizartean genero bakoitzak betetzea espero zen rolaarekin. Honek guztiak nokaren galera ekartzeaz gain emakumea hitanotik urrundu egin dute eta ondorioz hitanoa gizonezkoen kontua delakoaren ustea zabaldu da esparru askotan.

Gure gizartea genero berdintasunetik eraiki nahi bada, hizkuntzan ere aldaketak egon beharko dute eta aldi berean hizkuntzan ematen diren aldaketak gizarteko aurrerapausoen eragile ere izan daitezke. Horregatik, hitanoaren sustapenaz hitz egiterakoan beharrezkoa izango da nolako hitanoa eraiki nahi dugu erabakitzea.

Hitanoak funtzio sozial bat betetzen duela esan dugu; solaskideen arteko kidetasuna eta gertutasuna sortzen duela. Hitanoa gizonezkoek soilik erabiltzen badute eredu kaskarra izango da gizarte justuago baten bidean. Talde misto batean hizkeran neska eta mutilen artean ezberdintasunak egiten badira, honek harremanetan ere eragina izango du. Beraz, hitanoa kidetasunarekin lotzen bada baina kidetasun hori mutilen artean soilik ematen bada, berdintasuna lortzeko Altunak (Larretxea, 2018) bi aukera ditugula esaten du: “mutilen arteko lotura beharra murriztu edo emakumeen artekoa, oro har, pertsona guztien arteko lotura, sustatu”. Noka eta emakumeen artean hitanoa indartzeak emakumeen arteko kidetasuna sustatzen eta emakumeak ahalduntzen lagunduko luke (Legorburu, 2018).

Talde feministetatik, berdintasunaren bidean, hainbat herrietan hasi dira noka indartzeko ikastaroak, hitzaldiak eta jarduerak antolatzen. Honen adibide dira 2019an Oñatin sortutako “Ingo Xonau!” ekimena eta Gabirian antolatu zuten “Nokaldia”. Ekimen hauek oso garrantzitsuak badira ere, Ritxi Lizartzaren iritziz (Irureta, 2019), emakumeak ahalduntzeaz gain gizonak ere erakarri beharko dira nokara.

3.6. Hitanoa gazte hizkeran

Gazteen artean euskararen ezagutza asko zabaldu den arren, erabileran ez da hainbestearino nabaritu aurrerapausoa. Honen arrazoietakoa bat gazte hizkeraren falta dela esan ohi da. Gazte hizkera ordea, gazteek beraiek eta kaletik sortu behar dute, eta berez, gazte hizkera egon badagoen arren, ez du esan nahi eskoletan zer eginik ez dagoenik.

Iralen irakasle den Xabier Eizagirrek dioen moduan, herri batzuetan (konkretuki Azkoitiaz ari da) “aparteko baliabide natural eta aberatsa da hika hitz egitea, eta, batez ere, gazteen artean egitea. Hura ondo ikastea eta erabiltzea da ditxa, toka zein noka” (Eizagirre, 2019a: 5). Hitanoa erregistro informalerako, lagunarterako da egokia, eta Eizagirre beraren hitzetan “gure herrietan hika egin izan dugunean, neurri-neurriko hizkera-modua eskura izan dugu gazteen artean egiteko, hurbiltasuna eman digu, hainbat esapide egoki eman dizkigu, grazia bilatu diogu, umorerako ere sarri erabili dugu, bizitasuna eman digu...” (Eizagirre, 2019b). Beraz, noka emakumeak ahalduentzeko bide izan badaiteke, hitanoak orokorrean gazte hizkera eta euskararen erabilera indartzeko ere balio dezake.

Euskal Herriko leku askotan hitanoa oraindik bizirik dago, egoera informalean erabiltzen da eta funtzio sozial bat betetzen du: gertutasuna, kidetasuna... ematen die solaskideei. Ezaugarri hauexek dira gazteek kaleko hizkerari eskatzen dizkietenak: informaltasuna eta kidetasuna; arrazoi hau medio, zenbait lekutan gazteek, ia beti mutilek, euskarari hitanora jo dute. Hau guztia ilustratzeko balio dezake Eskoriatzan egindako ikerketa batean jaso zenak:

Herrian gazteen artean hitanoan hitz egitean -hiztun gutxi dauenez- atentzioa ematen du. [...] Gazteek ez dute hitanoan hitz egiten egunerokotasunean baizik eta honenganako hurbilpen txiki bat egin dute. [...] “plus” bat ematen dio haketan aritzen den gazteari desberdin izate horrek. [...] badirudi leku desberdinetako gazteen artean elementu hau amankomunean aurkitu daitekeela [...] Euskalkiek -hizkera lokalek-gizartearen legitimize maila handia daukatela aipatu da eta hikaren kasua horren adibide izan daiteke zeren eta elkarriketetan hikak ematen duen “plus” hori aipatzerakoan benekotasun maila handiago baten ondorio izan daiteke baita ere. [...] beraz, batetik, “desberdindu” egiten ditu gazteak beste gazteetatik erabiltzean eta bestetik, hitz egiten den pertsona horiekin konfidantza handiago bat ematen du (Beitia, 2017: 150)

Antzuolako gazteen artean egin zen beste ikerketa batean ere antzeko iritziak zeudela ikusi zen:

Badirudi Antzuolako gazteen artean, beste era bateko diskurtsoek geroz eta pisu handiagoa dutela [...] elkarrizketatutako bi mutil tokatzaileek eta nokarako trantsizioa egin duten bi emakumezkoek, nortasunarekin eta nolabaiteko euskal “pedigri” batekin lotu izan dute hitanoa beraien elkarrizketetan. Hitanoak “benetakotasun” zigilu gisako bat, eskaintzen duelarik neska zein mutil gazte hauentzat. (Legorburu, 2018: 100).

Gazte askok euskara eskoletan soilik ikasi eta erabili du, hau da eremu formala da ia landu duten bakarra. Eguneroko erabilerarako ordea, erregistro informala ere ezagutu behar denez, eskoletan erregistro informala lantzeko beharra dago. Hitanoarekin gauza bera gertatzen da: hitanoa gaur egun erregistro informalera mugatzen denez, eskoletan ez da ia batere lantzen. Etxeko transmisioa ere kasu askotan eten egin dela esan dugu eta ondorioz, kalea da hitanoa ikasteko leku bakarra. Kaleko eredu hauek ordea, askotan ez dira egokienak, bereziki generoari dagokionean, eta ondorioz okerreko ereduak ari dira zabaltzen gazteen artean. “Ikastolek eta eskolek euskara batu formala (zuka) ezarri dute heziketa-hizkuntzatzat, eta ez diete hikari lekurik txikiena ere egin. Horrela, zukari eman zaio prestigioa, eta hika kanpora laga, eskolatik kanpora. Badu, nire iritzian, eskolak zereginik hika irakasten eta erabilera sustatzen.” (Eizagirre, 2019a: 5)

Ritxi Lizartzak *Tribuaren Berbak* (2015) saioan zioen moduan, hikaren bi eredu ditugu: bata familiaratik jasotzen dena, tradizioetik datorrena eta bestea, gaur egun asko hedatzen ari dena, kaletik jasotakoa. Kaleko eredu hau ezagutza zabalik gabe ari da hedatzen, hemen noka ia erabat desagertu da eta erabilera aldetik ez da zuzenena. Zuka eta noka etengabe nahasten dira eta noka ezagutzen ez denez, askotan berdintasunaren ustetan, neskei ere toka egiten zaie. Lizartzaren iritziz eredu hau ez da baliogarria eta lanketa baten beharra dagoela esaten du, besteak beste eskoletan.

Gazteen interesa ikusita, eta Eizagirre eta Lizartzaren iritziak aintzat hartuz, eskolak hitanoa lantzeko leku egokiak izan daitezkeela uste da. Horretarako, ahozketasuna eta erregistro informala lantzeko egoera egokiak bilatu behar dira eta honek planifikazioa eskatzen du (Altuna, 2006). Kontuan hartu behar da gazte hizketa hau mutilez gain neskek ere behar dutela. Horregatik oso garrantzitsua izango da noketan indar berezia jartzea eta neskentzako erreferenteak topatzea.

Hitanoa ez da egun batetik bestera ikasten; kontzientziazioa, planifikazioa, inplikazioa eta denbora eskatzen ditu, besteak beste. Neskek hitanoa erabiltzea nahi badugu hitanoak izan ditzakeen konnotazioa negatiboak kentzen (edo hobe ez sortzen) saiatu beharko dugu, gazteek erreferente erakargarriak beharko dituzte, hitanoa naturaltasunez eta edozein egoeratan erabilgarria izan daitekeela ikusi beharko dute. Alokutiboaren konplexutasuna ondo jasotzeko ere denbora eta lanketa beharko da. Hau guztia ondo landu eta barneratzeko urteetako lana egin beharko da eta, agian, eraginkorragoa izango da lan honi haurrak txikiak diren momentutik eusten badiogu.

3.7. Hitanoa Haur Hezkuntzan

Hizkuntzaren garapenean oinarrizko urteak dira Haur Hezkuntzakoak. Etaparen amaierarako hizkuntza idatziarekin lehen saiakerak egiten hasten diren arren, etapa honetako ia jardun osoa ahozkoan izaten da. Gainera, ahozkotasan honen bidez sortzen da etorkizunean pertsona honek hizkuntzarekiko izango duen atxikimendua; beraz, oinarrizkoa izango da eskoletan arreta berezia jartzea gai honi. Hauxe da Igerabidek (1993: 49) honi buruz dioena: “Ahozkotasanaren oinarriak jaiotzatik bertatik datozkigu. Haur jaioberriak belarritik eta ahotik izan ditu inguruarekiko lehen ezagutzak, eta afektibitate indarrez beteriko harremanak izaten dira horiek.” Haurrak hizkuntzarekin duen lehen kontaktu hau etxean eta bere ama hizkuntzarekin egingo du, baina gaur egun umeak oso goiz eskolaratzen direnez, ikastetxeetan ere ahozkotasa funtsezkoa izango da atxikimendua lortzeko. Askok euskararekin lehen kontaktua eskolan izango dute eta lehenengo esperientzia honek etorkizunean hizkuntzarekin izango duen harremanean zeresan handia izan dezake.

Haurra jaiotzen den momentutik bertatik (eta seguruenik jaio aurretik ere) hasten da bere inguruko hizkuntza ikasten eta bost urte betetzen dituenerako, ahozko hizkuntza guztiz garatua izango du. Oraindik ere lexiko aberatsagoa, pragmatika, hizkuntzaren aldaerak eta beste hainbat arlo ikasi beharko dituen arren, bost urte dituen berezko oinarrizko gramatika guztiz barneratuta izango du (Barreña eta García, 2009). Beraz, Haur Hezkuntzako urte hauek funtsezkoak direla esan dezakegu. Honen haritik, hitanoaren biziraupena ziurtatzeko eta gazteek modu zuzen eta egokian erabiltzea nahi badugu, adin tarte hau ere kontuan hartu beharko genuke, batetik urte

hauetan garatzen delako hizkuntza eta bere gramatika, baina baita aurretik aipatutako atxikimenduaren ikuspegitik ere. Gainera, hizketan ikasteen gramatikaz gain hizkuntza ohiturak, rolak, konnotazioak eta abar ere barneratzen dira eta gure asmoa etorkizunean hauek aldatzea bada (nokaren kasuan, esaterako) txikitatik, ematen ari garen hizkuntza eredua aztertu beharko dugu.

Hizkuntza bat ikasteko, ikasleak hizkuntza horren *input*-a jaso behar du; hau da, egoera komunikatibo batean mezua hizkuntza berri horretan emango da eta ikasleak hizkuntza horretan entzun, irakurri edo jasoko du. Bigarren hizkuntza baten ikasketan argi dago inputa dela kontzepturik garrantzitsuena; inputik ez badago ikasketarik ere ez (Fernández, 2013). Hitanoa hizkuntzaren aldaera bat baino ez den arren, berdin gertatzen dela dirudi; ikasiko bada hitanoaren inputa beharrezkoa izango da, eta gainera, input horrek egokia izan beharko du. Haurrek input hau txiki txikitatik jasotzen badute, hobeto eta errazago barneratuko dute. Honen ondoren, outputak ere, noski, izango du bere garrantzia, eta modu batean edo bestean hasierako momentutik honi ere jarri beharko zaio arreta. Hala ere, Haur Hezkuntzako etapan inputak pisu handiagoa izango du.

Hitanoaren transmisioa etxetik egiten denean, normalean haurrek ez dute hasieran hitanoa erabiltzen; esan dugu, gehienetan koskortzen direnean hasi ohi direla. Hala ere, beren inguruan, egunerokoan entzun egiten dute helduen ahotan, eta honi esker ikasten hasten dira. Gaur egun input hori sarritan umeen inguruan existitzen ez denez, eskolak eskaini beharko dio.

Transmisioa etetearen beste arazoetako bat hitanoaren erreferente falta da, bereziki nokarenak. Normalean erreferente horiek ingurukoak edo literaturatik, zinematik, komunikabideetatik eta gainerako *mass media*etatik jasotakoak izaten dira. Hitanoaren ingurua, azkenaldian, kasu gehienetan kalea denez, ez da eredurik zuzenena izaten, eta nokaren erreferenteak falta dira hor. Gainerako bideetatik ere zailtasunak izango ditugu modu naturalean erreferente egokiak topatzeko. Eskoletan lan kontzientea egin beharko da hutsune hau betetzeko. Gertuko eta hasierako erreferenteak irakasleak beraiek izan daitezke, baina horretarako irakasleen artean gaiaren inguruko kontzientzia zabaltzeko beharko da, eta kasu askotan prestaketa lana ere bai, irakasle askok ere ez baitute tradizioz hitanoa jaso. Alde honetatik eskolak bere

osotasunean, eta ez Haur Hezkuntzan soilik, hausnarketa sakona egin beharko du hitanoaren alde lan egin nahi duen edo ez erabakitzeko, eta erabakia irmo hartzen badu horretarako baliabideak jarri beharko ditu. Egun, Iñaki Iturainek dioenez, erakundeek eta eskola gehienek lan hau egiteko dute:

Modu sistematiko eta serioan ez da ezer egiten haur-gazteek ikas dezaten, ez eskola publikoan, ez ikastoletan, ez euskaltegietan. Tradizioz eta transmisioz ari da hika hitz egiteko ohitura bizirauten, baina galera oso nabarmena da. Hezkuntza Sailak, Ikastolen Elkarateak eta Hizkuntza Politikak erabaki serioak hartzen ez badituzte, belaunaldi gutxi barru hondoratuko den itsasontziaz ari gara hizketan. (Irureta, 2019: 34)

Eskola osoak hitanoaren aldeko apustua egiten badu, hitanoa lehen urteetatik, hau da, Haur Hezkuntzatik lantzen hastea proposatzen da hemen. Txikitatik haurrek hitanoa eta konkretuki noka entzun behar dute beren inguruan. Hitanoak haurren egunerokoan txertatuta egon behar du, dela beraiei zuzentzerakoan, dela helduen artean edo entzuten dituzten ipuinetan. Hitanoaren ospe txarra kentzeko haurrek txikitatik naturaltasunez sumatu behar dute, egoera arruntetan eta edozein gairi buruz aritzerakoan.

4. HITANOA UROLA ERDIAN: EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA ETA HITANOAREN EGOERA BAILARAN

Euskal Herriko leku askotan hitanoa ahuldu, eta batzuetan, desagertu ere egin bada, Urola erdiko herrietan oraindik ere oso ohikoa da kaleetan hika entzutea. Herri hauetako biztanleek beren egunerokoan hika hitz egiteko ohitura mantentzen dute eta noka ere erruz entzun daiteke. Honek, ostera, ez du esan nahi kezkatzeko motiborik ez dagoenik. Gazteen artean erabilera ohitura ezberdinak dituzte neskek eta mutilek; lehen normaltasunez erabiltzen bazen toka zein noka emakume nahiz gizonezkoen artean, egun, generoari atxikitako konnotazioak indartzen ari diren susmoa dago. Egoera honetaz oharturik proposamen, artikulua eta ikerketa batzuk egin direnez, nire proposamena kokatzeko ikerketa hauetan jasotako datuak aztertuko ditut.

4.1. Hitanoa gazteen artean: Azpeitiko kasua

Azkoitian, orokorrean, gazteen artean hitanoak, eta bereziki nokak, beherakada nabarmena egin duenaren ustea dago, baina ez da hitanoaren erabileraren inguruko

azterketarik egin. Datu zehatzagoak jasotzeko asmoz, alboko herrian, Azpeitian, egin diren ikerketetara jo dut.



Azkoitia eta Azpeitia Urola bailararen erdialdean kokatzen dira eta bien artean kilometro gutxiren tarte dago. Arlo ekonomikoan, kulturalen, giza harremanetan eta beste edozein mailatan ere bi herrien arteko lotura oso estua da. Bien egoera soziolinguistikoa –herri bakoitzaren berezitasunak berezitasun– nahiko antzekoa denez, Azpeitian jaso ziren datuak ezagutzea interesgarria izan daiteke Azkoitiko errealitatera hurbiltzeko. Hauxe da Azpeitian jaso dena:

Ikerketetan jasotako datuak

- Azpeitian, 2011n, Euskara patronatuak bideratuta, Batxilergoko ikasleen artean galdetegi bat egin zen hauen hizkuntza ohiturak ezagutzeko; beste hainbat xehetasunen artean hitanoari buruzko informazioa ere jaso zen. Hona hemen jaso ziren datuak:
 - Ikasle hauen gurasoen gehiengoak (%87) zuka erabiltzen dute beti elkarren artean hitz egiteko. Hitanoa erabiltzen dutenak %6 baino ez dira.
 - Amek beren seme alabekin zuka egiten dute kasurik gehienetan (beti zuka egiten die %81ek alabei eta %73k semeei). Seme alabek amarekin ere halaxe egiten dute ia beti. Hala ere, ohitura araua hautsiz, semeen %2k hika egiten dio amari.
 - Aiten kasuan, amekin alderatuta, hitanoa gehiago erabiltzen dela ikusten da. Orokorrean, aitek beren seme-alabei kasu gehienetan zuka egiten dituen arren, semeen kasuan %34a dira beti zuka erabiltzen dutenak eta gainerakoek, gehiago edo gutxiago baina hitanoa erabiltzen dute semeekin. Alabek aitarekin beti zuka egiten dute. Semeen gehiengoak ere modu berean egin arren, %22k hika hitz egiten diote aitari beti edo gehienetan.
 - Haurrideen arteko datuei dagokionez, neskek ia beti zuka egiten dutela ikusten da. Ahizpen kasuan hitanoak apenas duen presentziarik eta nebekin dihardutenean berriz %6an baino ez da nagusitzen hitanoa. Mutilen gehiengoak ere (%80 inguruk) zuka egiten die beren arrebei

gehienetan. Hitanoa gehien anaien artean egiten da, kasu honetan zuka eta hika antzeko proportzioan erabiltzen dela esan daiteke.

- Ikastetxeetan irakasle gizonezkoek, ikasle neskei baino hika gehiago egiten diete ikasle mutilei (gehienetan hika, neskei %6 eta mutilei aldiz %58). Irakasleak emakumezkoak direnean ere neskekin ia beti zuka aritzen dira, mutilekin berriz hitanoa ere erabiltzen dute (kasuen %13an).
- Igorleak ikasleak direnean, neskek beti zuka egiten diete irakasleei; mutilek ere gehienetan hala egiten dute, baina irakaslea gizonezkoa den kasuetan hika gehiago erabiltzen dute zuka baino (%59).
- Neska eta mutilen arteko ezberdintasun nabarmenenak ikaskide eta lagun artean daude. Neskek ia beti zuka hitz egiten die bai beste neskei baita mutilei ere. Mutilek neskei ere hala egiten die, baina beraien artean, hau da bi mutilen artean erabiltzen duten erregistroa hitanoa da ia %100ean.
- 2016an, Soziolinguistika Klusterrak (2018b) hitanoaren erabilera kuantifikatzeko asmoz, kale neurketa egin zuen Azpeitian. Horretarako kalean entzuten diren elkarrizketak behatu zituzten eta hauexek izan ziren jasotako emaitzak:
 - Elkarrizketen %62a zuka izan zen eta %38a hitanoz.
 - Hitanoz egindako elkarrizketak: noka %18, toka %45 eta hika formarik gabe %37.
 - Hitanoaren kale erabilera generoaren arabera: emakumeak %23, gizonezkoak %51.
 - Hitanoaren kale erabilera adinaren arabera: orokorrean gazteak dira hika gehien egiten dutenak, hauen elkarrizketen %66 izan zen hika eta gutxien berriz umeek egiten dute, %11. Toka eta nokaren artean bereizten badugu berriz, oso bestelako datuak daude: adinekoak dira noka gehien egiten dutenak (hikako elkarrizketen %45), aldiz gazteek eta umeek oso gutxi egiten dute. Gazteen hikako elkarrizketen %7a izan zen noka eta toka berriz %60. Adinean zenbat eta gazteago orduan eta noka gutxiago entzuten da.




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitia eta Usurbilgo hizkuntza-erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa, 2016.


- Azken urteotan Azpeitiko hitanoari buruz Muguruza, Bereziartua eta Etxeberriak, (2020) abiatu duten ikerketan ere antzeko datuak jaso dira:

Senideen artean hika (%).

		Ahizpari / Arrebari	Anaiari / Nebari
+18	♀	38,3	53
	♂	44	79,2
12-18	♀	4,8	15,2
	♂	19,6	50

Hitanoaren erabilera anai-arreben artean (%).**Lagunartean artean hika (%).**

		Lagun emakumezkoari	Lagun gizonezkoari
+18	♀	44,9	50,5
	♂	42,1	93,2
12-18	♀	2,4	13
	♂	16,1	87,1

Hitanoaren erabilera lagunartean (%).

Iturria: Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020.

Datuen azterketa eta ondorioak:

Datuen anabasa honetatik ondorio edo joera argi batzuk atera ditzakegu. Orain arte hitanoaren beherakadaz hitz egin da, baina kale neurketan jasotakoan arreta jartzen badugu, hitanoz entzun ziren elkarrizketa gehien gazte artekoak izan zirela ikus dezakegu. Galdeketei erreparatuz gero, mutilen ia %100ek dio gutxienez egoeraren batean hitanoa erabiltzen duela (bereziki kalean). Beraz, eta datu hauetan oinarrituta ezin da esan hitanoa galtzen ari denik. Arazoa ikusteko beste ikuspuntu batetik begiratu

behar da: generoaren ikuspegitik. Igorleen aldetik, adinekoen artean bai emakume zein gizonezkoek hitanoa erabiltzen duten bitartean, emakume gazteek askoz ere gutxiago egiten dute hika. Hartzaileekin ere gauza bera gertatzen da; adinekoen artean generoen artean ia ezberdintasunik ez dago baina gazteen artean emakumeei askoz ere hitano gutxiago egiten zaie gizonezkoekin alderatuta. Beste aldaketa garrantzitsu bat hitanoaren eremuan dago: lehen hitanoa gehien senideen artean egiten bazen (Alberdi, 1993), orain lagun artean ari da nagusitzen.

Beste aldaketa baten zantzua ere ikusten ari gara. Adinekoen artean helduagoei, eta gurasoei bereziki, hika hitz egitea pentsa ezina bazen, gaur egun gizonezkoen artean asimetria hau pixkanaka lausotzen ari dela dirudi. Gero eta gehiago dira aitari edo irakasle gizonezkoari hika hitz egiten dioten mutil gazteak.

Laburtzeko, gazteen artean egungo joera honakoa da: mutilek gehiago egiten dute eta mutilei gehiago egiten zaie, gainera gazteek hitano gehien kalean egiten dute. Etxeko transmisioan, bereziki emakumeei dagokionean, etena ikusten da eta ondorioz, gazteek hitanoa kaletik jasotzen dute neurri handi batean. Honek nokaren beherakada itzela eragin du: norabide honek jarraituz gero, herri honetan (eta antzeko egoeran dauden besteetan ere, tartean Azkoitia) noka erabat galduko da.

Alberdik (1993) aipatzen zuen boterearen semantikatik generoaren era ote goaz?

4.2. Azkoitiko kasua

Azkoitia orokorrean oso herri euskalduna da. Eustaten 2020ko datuen arabera herritarren %76,91 da euskalduna eta 2018an egin zen kale neurketan euskaraz elkarrizketen %68,9a sumatu zuten. Gainera, iturri honen arabera gazteak eta umeak dira euskaraz gehien aritzen direnak. Azaletik begiratuta eta ahozko erabileran behintzat, Azkoitiko egunerokoan hizkuntza nagusia euskara dela esan dezakegu. Azkoitian hitanoaren inguruko azterketarik egin ez den arren, eta beraz, datu zehatzik ez dugun arren, hitanoa bizirik dago herrian. Kalean aise entzun dezakegu hitanoa, bai toka eta baita noka ere. Hitanoa herriko hizkeraren ezaugarrietako bat izan dela ere esan daiteke. Honela kontatzen du Josune Herrerak (2016) bere esperientzia: “Duela hogeitaz urte Azkoitira bizitzera etorri nintzenean, [...] Orduan hasi nintzen hemengo jendea

ezagutzen, eta denek edo ia denek hika egiten zidaten. Lehenengo hitzetik hika! Eta neskak baldin baziren are eta gehiago.”

2010ean Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak euskararen gainean hausnartzeko eztabaida taldeak sortu zituen eta bertako partaideen artean ere hitanoa oso ohikoa zela ikusi zen, bereziki taldeko zaharreneen artean:

—Ta gure osabak eta osaba-izebak neri adibidez haxe danak anai-arreba danak hike. Nahiz neskak izen nahiz mutilek izen danak hike. Gure osaba-izebak eta alkarren artin danak hike ette zien. Nahiz neskak izen nahiz mutilek izen. Bai atten aldetik ta bai aman aldetike bai.

—Gurasuk neri neska kozkorra nitzelare haxek nei hi, enkanbio nik gurasui zuke beti. Ahizpekin nahiz ta alde handikuk gea bi ahizpe baine beti hi alkarri. Lagunei hi. Seme-alabai hi. (Olalde, 2011: 62-63)

Gazteenen artean ordea bestelakoak entzun ziren, azken urteotan sumatzen diren joera kezkagarrien seinale:

—Bai kuadrilan hike, bueno neskai ez, neskai zuke.

—Neskakin hika normalin oso gutxi.

—Hika mutilei.

—Nik neska batekin beti hika ta beake hala hitzetteu e? baine hika mutilekin, ta beste erozein neskai ezingo nixon hika ein. (Olalde, 2011: 61)

Pertsona batetik bestera erabilera asko aldatzen den arren, orokorrean gazteen neskak hitanotik urruntzen ari dira eta ondorioz nokaren egoera kezkagarria da. Mutilek hitanoa erabiltzen duten arren, gaizki erabiltzen dute askotan, neskei toka eginez edo hiperhitanoa erabiliz. Xabier Eizagirre hitano irakasle azkoitiarra ere uste berekoa da: Azkoitian “gaur, hika mutilek egiten dute, batik bat; neskek lehen baino askoz ere gutxiago, eta, gazteenek, ezer gutxi. Hikaren ezagutzak atzera egin du. Mutilen arteko hika (toka) ari da nagusitzen, eta hura ez da, askotan, ondo erabiltzen [...] neska gazteek muzin egin diote hikari, mutilen kontua omen da hori” (Eizagirre, 2019: 5).

Gazteek hitanoa erabiltzeko nahia agertzen duten arren, batzuetan ez dira eroso edo kapaz sentitzen:

—Nik naxo det nei hika eingo balieke. Nei gexo gustatze zat. Ta neuk eztet etten beine baine...

—Neire gustatze zat baino nei pasatze zat, nei batzuk etteibe hika ta nahiz ta jakin nik hika etten, eztit ertetzen

—Nik ustet gexo praktikatzie dala.

—Ta hika ta zuka ta hika ta zuka ta horire etzat gustatzen baine ez naiz kapaza, ez naiz komoda sentitzen nahiz ta jakin nola ettean e? (Olalde, 2011: 60)

Azken urteetako aldaketaren testigantza egiten du Herrerak (2016) bere artikuluan. Bera duela 20 urte Azkoitira iritsi zenean, denek noka hitz egiten zioten eta bere sorterrian ere hitanora ohituta egon arren, harritu egiten zen ia ezezagunak zirenek ere hika egiten ziotelako. Egungo egoeraz honakoa dio:

Gu gazte ginenean ezagutu ere egin gabe hika egiten zidaten haiek ez diete nonbait beren seme-alabei hika egiten irakatsi. Ondorioz, seme-alabek ez dituzte hitanoaren oinarrizko arauak ikasi, eta gazteen artean zeharo aldrebestu da erabilera. Neskek egin ere ez dute egiten (...) ezin ulertu. Duela urte batzuk mundu guztiari, ezagunari eta ezezagunari hika egiten zieten haiek, etxe-etxekoei, beraien ondorengoei ere ez egitea orain. Belaunaldi batean transmisioa hainbeste eten izana. (Herrera, 2016)

Herritarren iritzi eta irudipenak jasota, Azkoitiko kasua Azpeitikoaren oso antzekoa dela dirudi. Orain dela urte batzuk hitanoa, bai toka eta baita noka ere, etxeetan eta kalean erruz erabiltzen bazen, gaur egun atzerakada nabarmena dago etxeko transmisioan eta honek hitanoaren erabilera okerra eta nokaren beherakada ekarri du.

Egoera honek kezka sortu du herritar eta erakunde batzuen artean ere: besteak beste, euskaltegian, herriko ikastetxeetan edo Udaleko Euskara Sailean.

AEK euskaltegiak, adibidez, hitano ikastaroak edo “Hiketalagun” bezalako proposamenak egin ditu. Jarduera hauetarako ez da ordea sekula talderik sortu eta beraz, ez dira proposamen hauek gauzatu.

Udalak, bere aldetik, 2020-2023ko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren barruan hitanoaren erabilera bultzatzea jarri du erdigunean. 2013an Euskara Mahaia sortu zen eta ordutik herriko hainbat taldeetako kideak biltzen dira herrian euskara sustatzeko intentzioarekin. Hitanoa gazteen artean hartzen ari den joera dela eta 2019an gai hau lantzen hasi ziren Euskara Mahaian. Hasteko, herriko gazteekin jarri ziren harremanetan, hauen iritzi eta parte-hartzea ezinbestekoak izango zirelakoan. Gazteen aldetik jaso zuten erantzuna oso ona izan zen. Gazteak oso interesatuta eta motibatuta agertu ziren. Lehenengo bi bilerak egin zituzten eta baita jarduera ezberdinak egiteko ideiak bildu ere. Hirugarren bilera egitear zegoela, oster, Covid 19a agertu zen eta

egitasmoa hankaz gora jarri zuen. Herrian interesa eta jarduerak antolatzeke gogo badagoela ikusi da eta momentuz proiektua nahiko geldituta dagoen arren, berriz ere martxan jartzeko intentzioa dago.

Azkoitiko errealitatea ikusi ondoren, betetzen dituen ezaugarriak egokiak dira nire proposamena kokatzeko. Hitanoa bizirik dago, baita noka ere, eta gaiaren inguruan orokorrean interesa eta jarrera baikorra ikusten da. Lehen etxeetan modu naturalean egiten zen transmisioa galtzen ari denez, eskoletan egin beharko da lanketa eta nik lanketa hau umeak eskolaratzen diren momentutik hastea proposatu nahi nuke.

5. PROPOSAMENAREN XEDEA: FLOREAGA SALESTAR IKASTETXEA

5.1. Floreaga Salestar ikastetxeko errealitatea

Proiektu hau Azkoitiko Floreaga ikastetxera bideratu da batetik Azkoitian hitanoa eta konkretuki noka bizirik dagoelako eta bestetik bertako ikasle zein irakasleen ezaugarriak egokiak izan daitezkeela uste delako.

Floreaga ikastetxean Orik 16 urtera arteko hezkuntza eskaintza dago. Azkoitia, orokorrean, oso herri euskalduna dela esan dut, baina ikastetxe honetako errealitatea ez dator guztiz bat datuokin. Egun ikastetxean D eredu baina ez dagoen arren, duela 30 urte inguru arte, euskarazko ereduaz gain gaztelaniazkoa ere bazegoen. Eskola honen ordezkari aukera Ikastola zenez, euskaldunak ez ziren familia gehienek hemen matrikulatzen zituzten beren seme-alabak. Ikasle haiek gaur egungo gurasoak dira, eta horregatik euskaldunak ez diren familia askok, lotura mantentzen du ikastetxearekin eta ohituraz, familia ez euskaldunetako ume gehienak hemen matrikulatzen dira. Azken urteotan gainera, etorkinen kopurua ikaragarri igo da herrian eta ondorioz, dena batuta, eskola honetan hasten diren umeen erdia edo gehiagoren ama-hizkuntza ez da euskara. Herriko giro euskaldunari eta eskolan egiten duten lan gogorrari esker, ikasketak amaitzerako, orokorrean ikasle guztiek euskara maila ona lortzen dute. Hala ere, ikastetxearen erronka nagusietako bat euskara eta bere erabilera suspertzea da.

Dagoeneko aipatu da gazteen euskararen erabileran eragiteko gazte hizkera indartzearen garrantziaz, eta honen barruan hitanoak izan dezakeen lekuaz. Baita bailara honetan, hitanoa bizirik egon arren, gazteen artean tokak nokaren aurrean hartu

duen nagusitasunaz ere. Bi datuok batzen baditugu –ama hizkuntza erdara duten gazteak eta hitanoak kalean gazte artean duen erabilera– argi ikus dezakegu gazte hauek jasoko duten hitanoaren eredua: toka baino ez dute ezagutuko, noka apenas, eta hitanoa mutilen kontua dela ulertuko dute. Hitanoaren bestelako eredu baten beharraz kontziente bagara, hitanoaren joera aldaketa honetan eskolak eragile garrantzitsua –agian garrantzitsuena– izan beharko duela ikusiko dugu. Horretarako hitanoaren aldeko konpromiso irmoa hartu beharko da eta hitanoaren lanketa etapa bakoitzean nola landuko den planifikatu.

Ikastetxe honek bere alde duen ezaugarrietako bat irakasleen profila da, bereziki Haur Hezkuntzakoen artean: irakasle gehienak azkoitiarrak dira eta bertako herri hizkera ezagutzen dute. Irakasle hauetako askok, gainera, hitanoa bere egunerokoan erabiltzen du.

Momentuz, ikastetxean gaiaren inguruko nolabaiteko kezka badagoela ikusi da. Eskolan euskararen normalizaziorako talde bat dago, Eguzkilore izenekoa. Bertan gurasoek, irakasleek eta ikasleek (DBHkoak gehienak) parte hartzen dute. Euskara sustatzeko hainbat ekimen bultzatzen dituzte eta taldeak bere gai zerrendan du hitanoa, nahiz eta orain arte gaiari seriotasunez heltzeko betarik ez duten izan. Eguzkilore taldeko ikasleak herriko Euskara Mahaian parte hartu dute hitanoa sustatzeko asmoarekin eta eskolan ere berauek izan dira interes gehien agertu dutenak; besteak beste “hikaldia” antolatzea proposatu zuten. Oraingoz ordea, Covid 19a dela eta, erabat geldituta daude zituzten asmoak.

Ikastetxean egin izan da hitanoa lantzeko ekimenen bat edo beste: DBHko 3. mailan, kurrikulumaren barruan lantzen dute hitanoa euskarako ikasgai; azkoitiarrez hika egiteko oinarrizko aditz taula sortu dute; DBHko ikasleek bideo bat ere egin zuten hitanoari buruz, eta gero, LHko ikasleei aurkezpena egin zien. Honetaz gain, irakasle batzuek gaiarekin kontzientziatuta, ikasleei hitanoz hitz egiten diete. Ekimen guztiak ordea LHn, eta gehienak DBHn egin dira, bakar bat ere ez HHn. Gainera, elkarren artean loturarik gabeko saiakera txikiak baino ez dira izan; argi dago gaiari seriotasunez heldu nahi bazaio plan edo estrategia orokor baten beharra dagoela. Hala ere, eta planifikazio serioago baten faltan, ekintza hauek eskolan hitanoaren inguruko kezka dagoenaren isla dira.

5.2. Eskolako galdeketa eta jaso diren emaitzak

Aurreko puntuan Floreagako ikasleei buruz eman den profila oso orokorra da eta, gainera, datuetan baino, behaketan eta susmoetan gehiago oinarritzen da. Horregatik, eta errealitatea ahalik eta zehatzen jaso ahal izateko, bi galdeketa egin dira (eranskinetan ikus daitezke galdeketen ereduak).

Lehenengoa Haur Hezkuntzan lan egiten duten tutoreei zuzendu zaie. Galdeketa honen helburua irakasle hauek hitanoarekin zer nolako harremana eta interesa duten ezagutzea izan da; baita gela hauetan eta etapa honetako haurretan hitanoak duen presentzia zenbaterainokoa den ikustea ere.

Bigarren galdeketa lau eta bost urteko umeen gurasoei luzatu zaie. Galdeketa honen xedea adin tarte honetako umeek etxe eta familia inguruan hitanoarekin duten harremana edo kontaktua nolakoa den ezagutzea da; ea hurrei hitanoz egiten zaien, baina baita bere inguruko helduen elkarrizketetan entzuten duten jakitea ere.

Irakasleei egindako galdeketen emaitzak:

Haur Hezkuntzako 7 irakasleei luzatu zitzairen galdeketa eta denek bete dute. Hauexek dira jaso diren erantzunak:

- Datu pertsonalak: 7 irakasleak emakumezkoak dira. Denak azkoitiarrak, 40 eta 61 urte bitartekoak.
- Euskara eta hitanoaren ezagutza: Guztien ama hizkuntza euskara da eta denek erabiltzen dute hitanoa beren egunerokoan; noka zein toka, egoerak agintzen duenaren arabera.
- Hitanoa ikastetxean: Ikastetxean ere zazpitik sei irakaslek erabiltzen dute hitanoa. Hauek bereziki herritarrak diren lankideekin egiten dute hika, eta kasu batzuetan zenbait gurasorekin ere bai. Eskolako materialean hitanoaren presentziarik ez dagoela diote eta eskolan ere ez dute inoiz ezer egin umeekin hitanoa lantzeko (nahiz eta goragoko mailetan zerbait egin izan dela komentatzen duten).
- Hitanoa eta haurrak: Normalean umei ez diete hitanoz egiten, bi irakaslek diotenez inoiz ez dute umeekin erabiltzen eta gainerakoek batzuetan baino ez diete hika egiten, gehienek diotenez txantxetan ari direnean egiten dute. Kasu

honetan neska eta mutilen artean ez dago ezberdintasunik, baina egoerak ez dira gehiegi zehazten. Bi irakaslek nahiago dute umeekin zuka egiten jarraitu eta beste hiruk umei hika hitz egiteko prest egongo liratekeela diote. Umeek beraien artean ez dute hitanorik erabiltzen.

- Hitanoaren garrantziaz: Denak ados daude hitanoa mantentzearen garrantziaz. Euskararen eta bereziki Azkoitiko hizkeraren ezaugarri garrantzitsua dela diote eta galtzen ari denaren kezka dute. Eskoletan hitanoa lantzea beharrezkoa dela uste dute denek, bestela galdu egingo delako.

Gurasoei egindako galdeketen emaitzak:

Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko umeen gurasoei banatu zaizkie galdeketak. Gutxi gora behera 70 galdeketa banatu dira eta guztira 35 gurasok eman dituzte beren erantzunak. Irakasleen esanetan, erantzunak eman ez dituzten gehienak euskara ulertzen ez duten gurasoak dira, eta beraz hitanoa zer den ere ez dakitenak.

Hau da galdeketen bidez jaso dena:

- Datu pertsonalak:
 - Adina: Gurasoen adin tartean 30etik 51ra zabaltzen da, baina gehienak 36 eta 42 urte bitartekoak dira.
 - Generoa: 19 emakumezkoak dira eta 16 gizonezkoak.
 - Jaioterria: 25 Euskal Herrian jaioak dira –hauetako 15 Azkoitian eta 4 Azpeitian–, eta Euskal Herritik kanpoko jatorrikoak 10 dira (Alemanian, Nigerian, Marokon eta Gambian jaioak).
- Euskararen ezagutza eta erabilera:
 - Ama hizkuntza: 13k euskara, 11k gaztelania, birek biak eta 9k beste hizkuntza bat
 - Euskararen ezagutza: 22k bai, 2k pixka bat eta 11k ez
 - Haurrekin beti edo ia beti euskaraz egiten dutenak 20 dira, bikotekidearekin beti edo ia beti euskaraz egiten dutenak berriz 13.
- Hitanoaren erabilera:
 - Hitanoaren erabilera: egunerokoan 8 gurasok egiten dute hika, beste 5ek egoera konkretu batzuetan soilik erabiltzen dutela diote (lagun konkretu

batekin edo txantxetan ari direnean, adibidez) eta gainerakoek ez dute inoiz erabiltzen.

- Hitanoa egunerokoan erabiltzen dutenen artean, bakarra da emakumezkoa eta honek gizon zein emakumeei egiten die hika. Gizonezkoen artean berriz, noka erabiltzen dutenak 5 dira. Beste batek gizonekin bakarrik egiten du hika, eta ondorioz toka aritzen da, eta besteak emakumeei ere toka egiten die.
- Hitanoa noizean behin erabiltzen dutenen artean 3 emakumeak dira. Hauetako birek hitanoa emakume zein gizonezkoekin erabiltzen dute (bakoitzari dagokion erara) eta hirugarrenak senarrarekin soilik egiten duenez toka hitz egiten du. Hitanoa noizean behin erabiltzen duten gizonek toka bakarrik egiten dute, batak gizonezkoei egiten dielako eta besteak emakumezkoei ere tokaz aritzen delako.
- Hitanoa erabiltzen dutenek normalean lagunekin eta familiakoekin egiten dute (anai-arreba, lehengusu, seme-alaba...). Bikotekidearekin kasu konkretu batzuetan baino ez dute erabiltzen, adibidez, txantxetan ari direnean. Gizonezko batek bere aitari ere hika egiten diola aipatzen du.
- Umeei hitanoz egiteaz:
 - Egunerokoan inork ez die beren seme-alabei hitanoz egiten. Kasu konkretu batzuetan bai, haserrealdian edo txantxetan, adibidez. Arrazoen artean haurren adina (txikiak direlako) eta bereziki ohitura falta aipatzen dira. Batek arrazoen artean hitanoa takarra iruditzen zaiola dio eta beste batek gustuko ez duela. Gaur egun ez egin arren, hitanoz egiteko ohitura duten gurasoek etorkizunean, beren seme-alabekin ere hitanoa erabiliko dutela uste dute, eta kasu hauetan ez du umearen generoak eraginik.
 - Gurasoek umeei hitanoz ez egin arren, batzuetan inguruko beste heldu batzuk egiten diete. Heldu hauek normalean aiton-amonak edo osaba-izebak dira, eta kasu hauetan ez dirudi umearen generoak hitanoaren hautuan eraginik duenik. Gurasoen lagunak ere egiten die umeei hika baina hau normalean umea mutila bada gertatzen da (kasuren batean familia bereko mutilari egiten diote baina ez neskari).

- Hitanoaren garrantziaz: Galdera erantzun duten guraso gehienei garrantzitsua iruditzen zaie hitanoa mantentzea, kasu batzuetan beraiek erabili ez arren ere gustoko dutela aitortzen dute eta galtzea pena litzatekeela. Haurrei hitanoa ongi erabiltzen irakastearen alde agertzen dira gehienak. Badaude bestelako jarrera azaldu duten gutxi batzuk ere: batek hitanoa gustoko ez duela dio eta beste batek herritik kanpo ia erabiltzen ez denez, ez dio garrantzirik ematen hitanoa irakasteari. Baina orokorrean oso jarrera baikorra azaldu dute eta hitanoa jakin edo erabiltzen ez dutenek ere hitanoa euskararen eta herri nortasunaren parte baliotsu gisa ikusten dute.

Erantzunetatik ateratako ondorioak:

Haur Hezkuntzako irakasle guztiek erantzun dute, eta beraz ikuspuntu honetatik, jasotako erantzunak esanguratsuak izan daitezke. Gurasoei dagokionean ordea, 35 aita-amen erantzunak baino ez ditugu, beraz, ezin da esan hemen jasotakoa errealitatearen ispilu garbia denik. Dena den, errealitatera hurbilketa bat egiten laguntzeko balio dezakete jasotako erantzunek.

Orokorrean bai guraso, bai irakasleen aldetik interesa eta jarrera baikorra ikusi da. Haur hauei hitanoz egiten ez dieten arren (kasu batzuetan haurren adina izan daiteke ez erabiltzearen arrazoia) orokorrean ongi iruditzen zaie ume hauekin hitanoa lantzea. Irakasleek hitanoa mantentzea garrantzitsua dela uste dute eta gehienak prest leudeke beren ikasleei hika egiteko. Bi irakaslek zuka egiten jarraitzea nahiago dute, baina kasu honetan umeen adina izan liteke arrazoia, etapa honetako haur batzuk oso txikiak baitira (batzuek urtebete ere ez dute). Ohituraz, hain haur txikiei zuka egiten zaie eta agian proposagoa izan daiteke umeei hika etapako azken urteetan baino ez egitea.

Etap honetako irakasle guztiak azkoitiarrak eta emakumeak dira eta hitanoa egunerokoan erabiltzera ohituta daude. Proposamen honen gakoa irakasleak hitanoa ezagutzean dagoenez, irakasle hauek duten profila da egokiena proposamena martxan jartzeko. Ezagutza hau egongo ez balitz proposamena martxan jarri aurretik, irakasleek hitanoa ikasteko ikastaroetatik hasi beharko litzateke.

6. HITANOA INDARTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Hitanoaren jatorrizkoa eremua etxea eta lagun artea direla aipatu dugu. Leku hauetan transmisio egokia egin ezin bada ordea, eta hauen hutsunea eskolek bete behar badute, lehenengo pausoa eskola osoaren inplikazioa lortzea izango da. Hitanoa modu eraginkor batean irakasteko, irakaskuntzako etapa guztietan landu beharko da, lan zaila eta nekeza izango baita. Horregatik, eskolako eragile guztien adostasuna badago, ondo planifikatu beharko da eta etapa bakoitzak bere lan ildoak prestatu beharko du.

Lehenengo urratsa irakasleak kontzientziazatzea eta prestatzea izango da, beharrezkoa balitz, horretarako ikastaroak antolatuz.

Lan honetan egingo den proposamena Haur Hezkuntzara bideratuta dago. Normalean, hain ume txikiekin hitanoa egiten ez den arren, etapa honetan gehien erregistro informala eta ahozkoa erabiltzen dela aprobetxatuz, haurren belarriak hitanora ohitzea izango da helburu nagusia. Ahozkoak izugarrizko garrantzia du Haur Hezkuntzan; ia jardun osoa ahozkoan egiten da, erregistro informalean eta gainera herriko hizkera asko erabiltzen da. Ezaugarri hauek dira hitanoa lantzeko proposenak, horregatik, ahozkotasunean, ikasgelan egiten diren jardueretan hitanoa modu naturalean txertatzea izango da egokiena.

Hitanoa, normalean, herriko hizkeraren arabera egingo da eta tradizioz ditugun erabilera arauak errespetatzea gomendatzen da (ikus 3.3. puntua).

6.1. Proposamen didaktikoaren helburuak:

- Hurrei hitanoaren eredu moderno eta genero ikuspegitik orekatuago bat eskaintzea, hitanoari egozten zaion ospe txarra desagiteko.
- Hurrei hitanoaren input egokia eskaintzea, belarria hitanora eta bereziki nokara ohitzeko.
- Hitanoa egunerokoan txertatzea. Hitanoak ez du zertan haserrealdietarako edo umorerako soilik balio behar, edozein egoeratan erabili daiteke erabiltzaileen arteko harremana gertukoa bada edo nolabaiteko konfiantza edo kidetasuna badago.
- Hitanoan genero rolen arabera bereizketarik ez egitea. Hitanoa ez da neska edo mutilen kontua; hitanoak eskaini ditzakeen funtzioak eta onurak guztientzako

balio dezakete. Lehenengo zeregina generoen ikuspegitik hitanoak izan ditzakeen konnotazioez jabetzea izango da, konnotazio hauek umeei ez transmititzeko eta erabilera justuago bat egiteko. Hori bai, toka edo noka zein erabili erabakitzerakoan, oinarria errespetuan egongo da eta hartzailearen nahia bete beharko da.

- Noka indartzea. Tokaren aurrean nokaren egoera askoz ere ahulagoa denez, arreta berezia jarriko da noka eta beharrezkoa bada diskriminazio positiboa egingo da, hau da, nokak jardueretan tokak baino presentzia bera edo gehiago izan dezan saiatuko gara.
- Hurrek hitanoaren erabileran lehen saiakerak egitea. Normalean adin hauetako umeei hitanorik erabiltzen ez duten arren, ahozotasuna lantzeko jardueretan hitanoa ere sartzen saiatuko gara. Honetarako jardura ezberdinak erabili ditzakegu: antzerkia, olerkiak, haur kantak, kantu jolasak... Modu programatu eta ez natural batean bada ere hurrek hika pixka bat egitea da xedea.
- Irakasleak (eta ahal den neurrian gurasoak ere) gaiaren garrantziaz ohartaraztea eta guztien inplikazioa lortzea.

6.2. Hitanoa lantzeko proposamenak:

➤ Irakasleek hurrei hika hitz egitea

Haur Hezkuntzako umeei egunerokoan hika hitz egitea proposatzen da. Litekeena da haur txikienei hika eginez eroso ez sentitzea irakaslea, eta hala bada, zuka egin dezake, baina hitanoa erabiltzen badu arreta berezia jarri beharko du zein egoeratan eta norekin egiten duen, hitanoak bere gain dituen konnotazio negatiboak hurrei ez transmititzeko. Neska eta mutilai, biei egin beharko die eta edozein egoeratan erabiltzen saiatu beharko du, ez haserrealdian edo umorezko egoeretan bakarrik.

Hitanoa, noski, haur bakoitzari zuzenean ari garenean baino ez dugu erabiliko, hitanoa ez baita egokia talde osoarekin aritzeko.

➤ Ipuin kontaketetako elkarrizketetan hitanoa erabiltzea

Ipuin kontaketak Haur Hezkuntzako egunerokoaren parte dira. Normalean, umeei asko gustatzen zaizkie eta umeei sortzen dizkieten onuren inguruan ere asko hitz egin da.

Ipuin bildumetan, orokorrean ez da oso ohikoa hitanoa aurkitzea; normalean, tradizioko ipuinetan ariko dira pertsonaiak hika. Baina kontaketa bakoitza interpretazioa denez, sortzailea denez, kontalariak jarri ditzake pertsonaiak hika hitz egiten. Horretarako kontaketa hauek prestatu egin beharko dira. Hitanoa 3.3. puntuan Alberdik (1993) aipatzen dituen “euskal usarioen” arabera erabiltzea proposatzen da, ohiturari jarraituz egoeraren arabera zu edo hiren artean aukeratuz, eta beharrezkoa denean erabilera asimetrikoa eginez.

Esan bezala, ipuin tradizionalen bildumetan hitanoa presente den ipuinak aurkituko ditugu (Xabier Etxanizen *Geure ipuinak* izan liteke adibideetako bat). Batzuetan baztertu eta kritikatu egin izan dira pieza hauek transmititzen dituzten baloreak egokiak ez direlakoan. Gaurko ikuspegitik egokiak iruditu ez arren sinbolikoki oso indartsuak dira eta haurrentzat psikologikoki lagungarriak izan daitezke. Ipuin hauek baztertu beharrean bestelako ikuspegia erakusten duten beste batzuekin orekatzea proposatzen da.

Gure kontaketarako aukeraketa egiterakoan hitanoaren erabilera nolakoa den aztertu beharko da. Zein egoeratan eta nork erabiltzen du? Eta nork ez? Erabilera egokia egiten al da? Toka eta nokaren artean oreka al dago? Bilduma normalean toka errazago topatuko dugu noka baino. Erabilera guztiz egokia ez dela iruditzen bazeu testua moldatu egin dezakegu oreka bilatuz.

➤ Hitanoaren presentzia duten ipuinak haurren eskura jartzea

Ipuinetako pertsonaiak erreferente egokiak izan daitezke hitanoa haurrekin lantzeko eta baita umeak hitanoaren inputera ohitzeko ere. Honetarako, hitanoa presente dagoen haurrei zuzendutako liburu eta ipuinekin zerrenda bat osatzea proposatzen da eta gero, egokiak iruditzen zaizkigunak gelako liburutegian umeen eskura jartzea.

Ipuinetan hitanoa agertze hutsa ordea ez da nahikoa, nolako presentzia duen ere aztertu beharko da, gure helburuak betetzeko egokia den edo ez erabakitzeke eta eraiki nahi dugun hitanoaren ereduarekin bat datorren jakiteko. Horretarako irizpide batzuk proposatuko dira. Irizpide hauek ez betetzeak normalean ez du esan nahi liburua egokia ez denik, hutsuneak dituela baizik. Garrantzitsua izango da hutsune hauek identifikatzea beste liburu edo baliabide batzuekin orekatu ahal izateko.

Hauek dira liburua aztertzeko irizpideak:

- Hitanoa agertzen al da?
- Zein motatako ipuina da? Mitologikoa, tradizionala, modernoa...
- Hitanoa zein pertsonaiek erabiltzen dute? Gizonezkoek? Emakumezkoek?
- Noka agertzen al da? Eta agertzen bada, nork erabiltzen du? Gizonezkoek? Emakumezkoek?
- Nolakoa da hitanoaren igoilea eta hartzailearen arteko harremana? Modu simetrikokoa ala asimetrikokoa egiten da?
- Zein egoeratan erabiltzen da hitanoa? Eta toka/noka? Egoera arrunta, haserrealdia, umorea...
- Nolakoak dira hitanoa erabiltzen duten pertsonaiak? Pertsonaia arruntak, mitologikoak, baserritarrak, kaletarrak...

Hitanoa presente dagoen liburuen adibide batzuk eta hauen azterketa:

- *Basoko begiak*. Egilea: Iñaki Sanz Azkue. Ilustratzailea: Ainara Azpiazu.



Ipuin honek, ipuin tradizionalen itxura duen arren eta bertan kontatzen den istorioak euskal mitologiarekin lotura duen arren, ez da ipuin mitologiko bat, ezta tradiziokoa ere.

Ipuin honen protagonista Mieltxo mutikoa da eta elkarriketetan parte hartzen duten beste bi pertsonaiak mutikoaren aitona eta ama dira, baina bi pertsonaia hauen arteko elkarriketarik ez dago.

Hitanoa aitonak eta amak erabiltzen dute (bata gizonezkoak eta bestea emakumezkoak) eta belaunaldien artean ohi denez, erabilera asimetrikoa da umearekin.


Toka baino ez da agertzen. Emakumezko pertsonaia bakarra ama da, baina Mieltxorekin hiketa asimetrikoa egiten duenez, ipuinean nokak ez du presentziarik.

Hitanoa darabilten pertsonaiak eta egoerak arruntak dira; hika egunerokoan erabiltzen da.

Ipuin honen hutsuneak: Ipuin honen hutsune nagusia nokarena da. Ez da behin ere agertzen, baina erabiltzeko egoera egokirik ere ez du eskaintzen ipuinak.

➤ *Euskal mitologiako kondairak haurrentzat.*

Egilea: Txiliku. Ilustratzailea: Jose Angel Lopetegui



Ipuin honetan bi mundu nahasten dira, erreala eta mitologikoa. Mundu errealean hitanoa erabiltzeko egokiak izan daitezkeen egoerak egon arren, elkarriketa denak zuka dira. Hitanoa ipuinetan eta pertsonaia mitologikoen parte hartzen dutenean bakarrik agertzen da, hots, mitologiaren munduan. Ipuinetan, kasu gehienetan, anaiak dira toka egiten dutenak. Noka berriz Mariren istorioan soilik agertzen da. Marik berari hika egiteko agintzen die denei eta berak ere halaxe egiten die, baita umeei ere.

Ipuin honen hutsuneak: Hitanoa mitologiaren mundura mugatzen da. Hemen anaiak elkarrekin modu naturalean egiten dute toka baina erabilera hau ez da mundu errealeko neba-arrebetara zabaltzen. Noka ere pertsonaia oso berezira mugatzen da eta, gainera, egoera berezi honetan erabiltzea azpimarratu egiten da.

➤ *Kristiñeren ibilerak*. Egilea: Itziar Olaizola. Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.




Ipuin hau ume handixeagoei zuzenduta dagoen arren, egiten duen hitanoaren erabileragatik sartu dut zerrenda honetan.

Protagonista neska arrunt bat da eta hitanoa bere eguneroko bizimoduan oso arrunta da. Bere lagunekin, neska naiz mutilekin, hitanoa erabiltzen du edozein egoeretan, bere buruari

ere noka egiten dio eta irakasleek hitanoz egiten die gelako haur guztiei, neska zein mutilei. Haurrek berriz zuka hitz egiten diote helduei (ohitura den legez). Hitanoa eguneroko errealitatean, edozein egoeratan eta pertsonaia arruntek erabiltzen dute. Nokak presentzi handia du eta generoen artean ez da bereizketarik egiten hitanoaren erabileran.

- *Biganxaren ordaina / Makilakixki / Barbantxo / Patxi errementaria / Sorgin gaiztoa*. Mari Saila. Egileak: Sagrario Yarnoz eta Joxan Ormazabal. Ilustratzailea: Jesus Lucas.



Ipuin hauek guztiek tradizioetik jasotakoak dira. Bertako protagonistek hitanoa egunerokoan darabilte, “euskal usuario”en arabera. Ipuin bat edo bestean noka agertzen den arren (barbantxoko ipuineko neskamearen kasuan esaterako) toka askoz ere gehiago ageri da; gizonezko pertsonaiak ere gehiago daude.

Ipuin hauen hutsuneak: Ipuin hauen hutsune handiena nokaren presentzia urria litzateko.

➤ Antzerkia hitanoz egitea

Antzerkia oso baliabide interesgarria izan daiteke Haur Hezkuntzan lantzeko.

Antzerkien onuren artean honakoak aipatzen ditu Anjel Lertxundik:

“Literarioki eta psikologikoki, antzerkia da generorik lotuena haurrak lehen urteetan duen ibilbidearekin: batetik gorputza ezagutzen eta hizkuntza ikasten ari da haurra; bestetik gorputzaren mugimendua eta hitza uztartzen dituen artea da antzerkia.

[...] dramatizazioetako testuen erritmoak mnemoteknia indartzen du, gustu literarioa eta musika lantzen, psikomotrizitatea garatzen, ekintza bideratzen, ludikotasuna saritzen, sozializazio bilatzen, txaloen poza lortze” (Lertxundi, 2002: 6-8)

Onura hauez gain, antzerkiaz baliatu gaitezke haurrak hitanoan trebatzeko ere, hots, outputa lantzeko. Antzerkietako elkarrizketak prestatzerakoan ipuin kontaketetarako eman diren irizpideak jarraitu beharko dira.

Protagonista emakumezko eta gizonezkoen arteko oreka bilatzea komenigarria da.

➤ Haurren abesti, olerki edo jolasetan hitanoa dutenak txertatzea

Haur Hezkuntza da, abesti, olerki eta kantu jolasak gehien erabiltzen diren hezkuntzako etapa (nahiz eta beste adin batzuetarako ere onuragarriak diren). Oso ohikoa da haurren jolasetan, zotz egiteko formulak, soka saltorako abestiak, igarkizunak eta jolas kantan entzutea. Hurrek oso gogokoak dituzte, hitzen jolasak plazera eragiten baitie eta hizkuntza lantzeko oso baliabide garrantzitsuak dira. Haur abesti eta poesiek hainbat gauza lantzeko aukera ematen digute: hizkuntza, irudimena, gozamena, ezustekoa eta edertasuna, besteak beste (Igerabide, 2001). Baliabide hauek topatzeko tradizioa oso iturri emankorra da. Asko dira ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi umeen artean (eta helduetatik umeetara) transmititu diren kantu, jolas eta poesiak. Anjel Lertxundiren iritziz, “mundu hark utzi zigun ondare literarioak gure identitate kulturalaren zantzuak daramatza bere baitan. Bertan daude jasori, modurik bizienean egon ere, gure hizkuntzaren jokatzeko eta jolasteko modu aberatsenak (elipsiak, ironia, erritmoa, estilazioa, aliterazioa, irudiak, konparazioak...)” (Lertxundi, 2002: 7)

Kanta eta olerki hauetan maiz aurkitzen da hitanoa, batzuetan noka eta besteetan toka; irakaslearen lana izango da oreka bilatzea. Testu hauek baliagarriak izan daitezke haurren belarriak eta mingainak hitanora egokitzeko. Hemen adibide batzuk emango dira baina Oskorri taldearen *Doktor DO RE MI eta benedizebra* diskoan edo Anjel Lertxundiren *Aizak eta aizan elkarrekin dantzaz* liburuan, esaterako, askoz ere gehiago topatuko ditugu. Eta gustukoak topatzen ez baditugu gure erara moldatu ditzakegu edo eredu hauetatik abiatuz, berriak sortu.

- *Honek eta honek.*

Kantu jolas hau tradizioetik jasotakoa da. Honelakoetan ohi denez, bertsio ezberdinak topatu daitezke baina nik Azkoitian bertan jasotakoa proposatzen dut. Hemen, azken esaldian hitanoa agertzen da eta gainera haurren arabera toka edo noka erabiltzeko aukera ematen du.

Nola erabili: Kantu jolas hau haur txikiekin egiteko da. Helduak haurraren esku bat hartzen du eta abesten duen bitartean behatzak ukituz, batetik bestera pasatzen da eta kantua bukatzean kilimak egiten dizkio.

—Honek, eta honek, eta honek, eta honek
 bart ezteiak zituzten.
 —Honek honi zer esan?
 —Gonbidatzaileak nor ziran!
 —Gonbidatzaileak hori ta hau,
 hauxek dituk/n hogeita lau!

- *Lehenengotxu hori.*

Kantu jolas hau ere tradizioetik dator. Honek ere baditu bertsio ezberdinak, eta bertsio batzuetan bukaerako hitanoa zukaz egiten da. Hemen Azkoitiko aldaera proposatzen da, haurraren arabera toka edo nokaren artean aukeratu behar dena.

Nola erabili: Kantu jolas hau ere haur txikiekin egiteko da. Helduak haurraren eskua hartu eta hatz bakoitzari dagokion bertsoa abesten dio. Behin umeei kantua ikasten dutenean jolas ezberdinak egiteko ere balio dezake. Adibidez, haurrak ilara batean jartzen dira eta aurrekoak bere atzekoaren hatz bat aukeratzen du. Honek hartu dion hatzari dagokion bertsoa abestu behar du eta, gainera, aurrean duenaren arabera, toka edo noka amaitu beharko du. Bi gauza hauetakoren bat gaizki egiten badu ilaratik kanpo geldituko da eta bestela, bere atzekoarekin jarraituko du jolasa.

*Lehenengotxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 txikia duk/n hori.*

*Bigarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 nagia duk/n hori.*

*Hirugarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 luzea duk/n hori.*

*Laugarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 bizkorra duk/n hori.*

*Bostgarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 lodia duk/n hori.*

- *Ala kinkirrinera.*

Kantu honen kasua ere aurrekoen antzekoa da. Aldaera batzuetan hitanoa agertzen da eta beste batzuetan ez. Hemen agertzen dena, Urtxintxak jasotako aldaera da (<https://www.urtxintxa.eus/jolasa/kinkirrinera/>)

Nola erabili: Haur guztiak eskutik heldu eta korroan dantzatuko dute, hasieran denak barrura begira. Norberaren izena entzundakoan pertsona horrek buelta erdia eman eta horrela jarraituko du dantzan, kanpora begira jarrita.

*Ala kinkirrinera,
ala samurrera,
(jolaskidearen izena) plaza berriko
jira **hadi** beste aldera.*

- Antzezteko egokiak diren abestietan ere maiz agertzen da hitanoa, baita noka ere. Hemen adibide batzuk:
 - *Maria Goikoa* edo *Adi zan neska*. Oskorri taldearen “Doktor DO RE MI eta benedizebra” diskotik jasoak.
 - “Mirris-marras” edo “Aitona Martxeloren egiak (III)”. Anjel Lertxundiren *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan* liburutik.

7. ONDORIOAK

Egin diren azterketen arabera, Euskal Herriko hainbat lekutan gazteen artean hitanoa oraindik ere bizirik dagoela ikusten da. Herri batzuetan gainera, mutilen artean oso indartsu dago eta zentzu batzuetan, erabilera esparrua zabaltzen ere ari da. Honen adibide izan daiteke Azkoitiko kasua.

Neska gazteen artean baina, bestelako bilakaera bat ari da gertatzen, neskek ez dute hitanoa erabiltzen eta beraiei ere ez zaie egiten. Hitanoa, izatez, ezin da esan matxista denik. Mutilei toka egiten zaie eta neskei noka, baina hau hizkuntzaren atal bat baino ez da, eta ez du berezko konnotaziorik generoari dagokionez. Arazoa egiten den erabilerak sortzen du. Hitanoa mutilen kontua denaren ustea ari da zabaltzen nesken artean eta neska hauei erreferente erakargarriak falta zaizkie.

Hitanoa, erabileran, guztiz desagertuko balitz, galera hizkuntzaren aldetik izango litzateke, baina desagertpena nokarena bakarrik bada, genero ikuspegitik, berdintasunaren bidean atzerapauso nabarmena izango litzateke. Egoera beste hizkuntza batera eramanez, gaztelania kasu, mutilek euren artean *tuteoa* darabilten bitartean, neskekiko harreman guztiak *usted* formalaren bidez egitearen parekoa

litzateke. Hizkuntza gizartearen ispilu da eta generoaren arabera bereizketa hau ez dirudi berdintasunaren bidean oso egokia izan daitekeenik. Hitanoa bizirik mantentzen den lekuetan, erabilera orekatuago bat egin dadin, gaia landu egin beharko da eta eskolek lanketa honen eragile garrantzitsuak izan beharko dute. Lan honetan ikusi den bezala, hizkuntza eta bere gain dituen aurreiritziak, haurrak txiki-txikiak direnetik hasten dira jasotzen. Horregatik izango da garrantzitsua lanketa ere hasierako etapetatik egitea.

Hori bai, gai honekiko kontzientziazioa eta konpromisoa orokorrak ez badira, hau da, erakundeak eta hezkuntza komunitatea bere osotasunean inplikatzeko ez badira, proposamen hau Haur Hezkuntzan martxan jartzea alferrikako lana izango da. Hizkuntza ohiturak aldatzea oso lan zaila eta nekeza da, denbora luzez eta konstantziaz egin beharrekoa, eta hori lortzeko, eragile guztiek helburu berarekin eta planifikazio onarekin egin beharko dute lan.

Proposamen hau hitanoa bizirik dagoen herrietarako egin dela esan dut, baina hitanorik ez duten herri eta inguruetan ere erabilgarria izan daiteke. Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko gazte hizkeraren beharraz hitz egiten da. Hemen ikusi dugu hitanoak berezkoak dituen informaltasunak eta gertutasunak baliabide ezin hobea bihurtzen dutela gazte hizkerarako. Hitanora gerturatu diren gazteekin egindako ikerketek ere norabide hori erakusten dute. Hauek hitanoak nolabaiteko “desberdintasun” edo nortasuna ematen diela aitortzen dute, “plus” bat.

Bide honetatik, leku hauetan ere, txikitatik hitanoa lantzea eraginkorra izan daiteke etorkizunerako. Hori bai, kasu honetan ere apustu serio bat egitea beharko da, luzera begira egingo dena. Eta kasu bietarako, hitanoa indartzeko, eskoletatik haratago, erreferente egokiak topatu eta sortu beharko dira gizartearen; gazteentzat erakargarriak izango diren erreferenteak. Baina hau hezitzaileen esku bakarrik ez dagoenez, kasu honetan gizarte osoaren, hots, erakundeen, kultura sortzaileen, kirolarien, komunikabideetako arduradunen eta gainerako eragileen esku geldituko da.

8. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, Xabier (1993). "Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak". *Fontes linguae vasconum*, 64, 425-442 or. Eskuragarri hemen:
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=26138>
- _____ (1994). "Hitanoa non eta nork erabiltzen duen". *Euskera*, 39 liburukia, 3. zk., 983-993 or. Eskuragarri hemen:
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49990.pdf>
- _____ (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
 Eskuragarri hemen: <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/21014.pdf>
- _____. "Euskararen tratamenduak". *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.eus/seg/gizt/5/1>
- _____. "Hitanoa". *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Eskuragarri hemen:
<https://www.ehu.eus/seg/gizt/5/1/1>
- ALTUNA, Jaime (2006). "Eskola eta gazte hizkera". *Hik Hasi*, 106, 41 or. Eskuragarri hemen: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2006/03/1498220278-106.alea.pdf
- AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA (2011). *Azpeitiko gazteen hizkuntza-ohiturak*. Ondorioen txostena. Eskuragarri hemen:
http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/dokumentuak/2012/Azpeitiko_gazte_en_hizkuntza_ohiturak_ONDORIOEN_TXOSTENA_ona.pdf
- BARREÑA, Andoni eta GARCÍA, Iñaki (2009). "Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebkarrengan eta elebidunengan". *Euskera*, 54, 2-1. zatia, 603-638 or.
- BEITIA, Iñigo (2017). "Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103, 139-166 or. Eskuragarri hemen: http://www.soziolinguistika.org/files/inigo_beitia_bat103.pdf
- BEREZIARTUA, Garbiñe eta MUGURUZA, Beñat (2018). "Erabileraren gakoak egoera informaletan eta gazteen artean: hitanoa Azpeitiko gazteen artean". *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 60, 24-28 or. Eskuragarri hemen:

[file:///C:/Users/User/Downloads/Dialnet-ErabilarenGakoakEgoeraInformaletanEaGazteenArtea-6719777%20\(2\).pdf](file:///C:/Users/User/Downloads/Dialnet-ErabilarenGakoakEgoeraInformaletanEaGazteenArtea-6719777%20(2).pdf)

BARQUÍN, Amelia (2008). Euskararen erabilera ez sexista. Gasteiz: Emakunde.

Eskuragarri hemen: http://www.ehu.eus/e-makumeak/docs/eusk_gida_eu.pdf

EIZAGIRRE, Xabier (2019a). "Hike, Axkoittixen, gaixorik?". *Maxixatzen*, 393, 5 or.

Eskuragarri hemen:

<https://maxixatzen.eus/komunitatea/xeizagirre/1576002852774-hike-axkoittixen-gaixorik>

_____ (2019b). "Hike Azkoittixen: non hintzen eta nora hoa!"

EUSKARA INSTITUTUA, EHU. "Hitanoaren erabilera: euskalkien arteko erkaketa".

Sareko Euskal Gramatika (SEG). www.ehu.eus/seg

_____, "Berori". *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. www.ehu.eus/seg

HERRARTE, Josune (2016). "Neskei ez zaie hika egitea gustatzen". *Maxixatzen*, 2016-

07-19. Eskuragarri hemen:

<https://maxixatzen.eus/komunitatea/josuneherrarte/1468832855762-neskei-ez-zaie-hika-egitea-gustatzen>

IBARRA, Itsaso (2007). "Berorrek nahi baduzu egingo yau". *Argia*, 2091, 53-54 or.

Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2091/berorrek-nahi-baduzu-egingo-yau/>

IGERABIDE, Juan Kruz (1993). *Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotatua eta Literatura)*. Erein: Donostia.

_____ (2001). "Elkarriketa: Juan Kruz Igerabide". *Hik hasi*, 54. 22-27 or. Hemen

eskuragarri: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20010101/igerabide-juan-kruz>

IRURETA, Onintza (2019). "Aparaldia ote den". *Argia*, 2649, 34-35 or. Eskuragarri

hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2649/hitano-ikastaroen-gorakada>

FERNÁNDEZ, Claudia R. (2013). "Técnicas de enseñanza basadas en input para la adquisición de la gramática en la sala de clase". *Revista Nebrija de Lingüística Aplicada*, 13. Eskuragarri hemen: <https://www.nebrija.com/revista->

[linguistica/tecnicas-de-ense%C3%B1anza-basadas-en-input-para-la-adquisicion-de-la-gramatica-en-la-sala-de-clase.html](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2018-09-22-07-00/hemeroteca_articles/aberastasuna-den-edo-zantzu-sexistak-dituen-ikertzaileen-ahotan-eztabaidagai)

LARRETXE DE LA GRANJA, Oihane (2018). "Hitanoa, atetxo handia: Aberastasuna den edo zantzu sexistak dituen ikertzaileen ahotan eztabaidagai". *Gaur* 8, 2018-09-22. Eskuragarri hemen:

https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2018-09-22-07-00/hemeroteca_articles/aberastasuna-den-edo-zantzu-sexistak-dituen-ikertzaileen-ahotan-eztabaidagai

LERTXUNDI, Anjel (2002). *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan*. Donostia: Elkar.

LIZARTZA, Ritxi (2009). *Hika egiten ikasteko gida*. Bilbo: Baigorri.

_____ (2015). "Hitanoa eta generoa (1)".

<https://zuzeu.eus/euskara/hitanoa/zeu.eus/euskara/hitanoa/>

MAXIXATZEN EUSKALDUNON ELKARTEA (2012). "Euskararen hautematea Azkoitian XXI. Mendean". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 85, 203-223 or. Eskuragarri hemen:

<http://www.soziolinguistika.eus/files/Maxixatzen%20Euskaldunon%20Elkartea.pdf>

MUGURUZA, Beñat (2018). *Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?* Uda Ikastaroak EHU txostena. Eskuragarri hemen: <https://www.hitanoaz.eus/uda-ikastaroa-2018>

MUGURUZA, Beñat, BEREZIARTUA, Garbiñe eta ETXEBERRIA, Juanito (2020). "«Ez da mattetzen erakutsi». Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala". *Uztaro*, 115, 117-143 or.

OLALDE, Naroa (2011). *Euskararen hautematea azkoitian. Hiztuna, gizartea eta hizkuntza*. Eskuragarri hemen: <https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Azkoitia.pdf>

PAGOLA, Eli (2019). "Feminista gazteen ale xumea, Hernanin". *Nokaren galera. Larrun*, 239, 14-15. Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/larrun/2633>

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2018a). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*.

Azkoitia, 2018. Eskuragarri hemen:

[https://azkoitia.eus/images/Euskararen Erabileraren Kale-neurketa 2018 SLK Txostena.pdf](https://azkoitia.eus/images/Euskararen_Erabileraren_Kale-neurketa_2018_SLK_Txostena.pdf)

_____ (2018b). *Hitanoaren presentzia kuantifikatzeko ikerketa, Azpeitian eta*

Usurbilen. Emaizen txostena. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. Eskuragarri hemen:

[http://www.soziolinguistika.eus/files/hitanoa udako ikastaroak 2018 09 azkena 0.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/hitanoa_udako_ikastaroak_2018_09_azkena_0.pdf)

TRIBUAREN BERBAK (2015). *Euskara dela eta, emakumeek zer diote?* atalean Ritxi

Lizartzari elkarriketa. Eskuragarri hemen:

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoak/3168862/bideoa-hitanoaren-egoera-eta-erabili-ritxi-lizartzaren-hitzetan/>

TXILLARDEGI (1968). "Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz". *Euskera*, 13, 127-

136 or. Eskuragarri hemen:

<https://www.jakin.eus/show/5d6d3a07197a107b7757c36618f7408b94f653ba>

9. ERANSKINAK

IRAKASLEENTZAKO GALDEKETA

Datu pertsonalak

Generoa ☐ Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa ☐ Beste aukera bat

Adina _____ Jaioterria _____ Bizilekua _____

1. Zure ama hizkuntza zein da?

☐ Euskara ☐ Gaztelania ☐ Beste bat. Zein? _____

2. Zure egunerokoan hitanoa erabiltzen al duzu?

☐ Bai. Eta zein modu erabiltzen duzu? ☐ Toka bakarrik ☐ Noka bakarrik ☐ Biak
☐ Ez

3. Eskolan hitanoa erabiltzen al duzu?

☐ Bai. Eta zein modu erabiltzen duzu? ☐ Toka bakarrik ☐ Noka bakarrik ☐ Biak
☐ Ez

4. Nori hitz egiten diozu hitanoz eskolan?

Noka nori? _____

Toka nori? _____

5. Zuri nork hitz egiten dizu hitanoz eskolan?

Noka nork? _____

Toka nork? _____

6. Eskolako hurrekin hitanoa erabiltzen al duzu?

Neskekin

☐ Beti

☐ Batzuetan. Zein egoeretan bai? (Errieta egiterakoan, txantxetan, une goxoetan...)

☐ Inoiz ez. Zergatik? (Oraindik txikiak direlako, hitanoa itsusia delako...)

Mutilekin

☐ Beti

☐ Batzuetan. Zein egoeretan bai? (Errieta egiterakoan, txantxetan, une goxoetan...)

☐ Inoiz ez. Zergatik? (Oraindik txikiak direlako, hitanoa itsusia delako...)

7. Gehiago erabili nahiko al zenuke? Prest egongo al zinateke hurrei hika egiteko?

8. Zure gelako hurrek hitanoz egiten al dute beraien artean?**Neskek neskekin** ☐ Beti ☐ Batzuetan ☐ Inoiz ez**Neskek mutilekin** ☐ Beti ☐ Batzuetan ☐ Inoiz ez**Mutilek neskekin** ☐ Beti ☐ Batzuetan ☐ Inoiz ez**Mutilek mutilekin** ☐ Beti ☐ Batzuetan ☐ Inoiz ez

Kasuren batean erabiltzen badute, modu egokian egiten al dute (toka/noka ongi erabiliz...)? Zehaztu zenbat, nola eta zein egoeratan erabiltzen duten.

9. Garrantzitsua iruditzen al zaizu hitanoa mantentzea? Zergatik?

10. Inoiz egin al duzue eskolan zerbait hitanoa lantzeko? Zer eta nola landu duzue?

11. Eskolan erabiltzen duzuen materialean (ipuinak, kantak, antzerkia...) hitanorik agertzen al da? (Erantzuna baiezkoa bada zehaztu, mesedez)

12. Eskoletan landu beharko al litzateke hitanoa?

13. Gaiaren inguruan gehitu nahiko zenukeen beste edozein ideia.

GURASOENTZAKO GALDEKETA

1. GURASOA

Datu pertsonalak

Generoa ☐ Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa ☐ Beste aukera bat

Adina _____ Jaioterria _____ Bizilekua _____

Euskararen erabilera

Zure ama hizkuntza zein da?

☐ Euskara ☐ Gaztelania ☐ Beste bat. Zein? _____

Euskaraz ba al dakizu?

☐ Bai ☐ Pixka bat ☐ Ez (erantzuna ezezkoa bada ez jarraitu galdetegiarekin)

Seme-alabei zein hizkuntzatan hitz egiten diezu?

☐ Beti euskaraz ☐ Gehienetan euskaraz ☐ Gehienetan erdaraz ☐ Beti erdaraz

Zure bikotekidearekin zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

☐ Beti euskaraz ☐ Gehienetan euskaraz ☐ Gehienetan erdaraz ☐ Beti erdaraz

Hitanoaren erabilera

1. Zure egunerokoan hitanoa erabiltzen al duzu?

☐ Bai ☐ Ez

2. Toka /nokari dagokionez, bietatik zein eta bakoitza zein egoeratan erabiltzen duzu?

(toka: gizonei dagokiena, adibidez, *duk, dizkiat...* /noka: emakumeei dagokiena, adibidez, *dun, dizkinat...*)

☐ Toka bakarrik. Norekin?

- ☐ Guztiekin toka egiten dut emakume nahiz gizonekin
- ☐ Gizonekin bakarrik egiten dut hika, emakumeekin inoiz ez.

☐ Noka bakarrik. Norekin?

- ☐ Guztiekin noka egiten dut emakume nahiz gizonekin
- ☐ Emakumeekin bakarrik egiten dut hika, gizonekin inoiz ez.

☐ Toka eta noka, momentuko solaskideari dagokionaren arabera.

3. Nori hitz egiten diozu hitanoz? (umea aurrean dagoenean)

Noka nori? _____

Toka nori? _____

4. Zuri nork hitz egiten dizu hitanoz? (umea aurrean dagoenean)

Noka nork? _____

Toka nork? _____

5. Zure bikotekidearekin hitanoa erabiltzen al duzu?☐ Beti.☐ Batzuetan. Zein egoeretan bai? (Errieta egiterakoan, txantxetan, une goxoetan...)☐ Inoiz ez. Zergatik? (Egokia ez delako, neska/mutila delako, ohitura falta...)**Nola egiten diozu?** ☐ Toka ☐ Noka**6. Zure seme alabekin hitanoa erabiltzen al duzu?****1. seme edo alabarekin** ☐ Neska ☐ Mutila ☐ Beste bat Adina _____☐ Beti☐ Batzuetan. Zein egoeretan bai? (Errieta egiterakoan, txantxetan, une goxoetan...)☐ Inoiz ez. Zergatik? (Oraindik txikia delako, neska/mutila delako, hitanoa itsusia delako...)Etorkizunean hika hitz egingo diozula uste al duzu? ☐ Bai ☐ Ez**2. seme edo alabarekin** ☐ Neska ☐ Mutila ☐ Beste bat Adina _____☐ Beti☐ Batzuetan. Zein egoeretan bai? (Errieta egiterakoan, txantxetan, une goxoetan...)☐ Inoiz ez. Zergatik? (Oraindik txikia delako, neska/mutila delako, hitanoa itsusia delako...)Etorkizunean hika hitz egingo diozula uste al duzu? ☐ Bai ☐ Ez**3. seme edo alabarekin** ☐ Neska ☐ Mutila ☐ Beste bat Adina _____☐ Beti☐ Batzuetan. Zein egoeretan bai? (Errieta egiterakoan, txantxetan, une goxoetan...)☐ Inoiz ez. Zergatik? (Oraindik txikia delako, neska/mutila delako, hitanoa itsusia delako...)Etorkizunean hika hitz egingo diozula uste al duzu? ☐ Bai ☐ Ez

7. Zure seme alabei inork egiten al die hitanoz? (osaba, izeba, aitona, amona, laguna...)**1. seme edo alabari** ☐ Ez ☐ Bai. Nork? _____**2. seme edo alabari** ☐ Ez ☐ Bai. Nork? _____**3. seme edo alabari** ☐ Ez ☐ Bai. Nork? _____**8. Garrantzitsua iruditzen al zaizu hitanoa mantentzea? Zergatik?**

9. Gaiaren inguruan gehitu nahiko zenukeen beste edozein kezka, ideia...
